ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2022-03-437.ZENBAKIA

KARKARA

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

ZER DAKAR BIZIBERRITZE PLANAK?

neerù
YOGA ETA JARRERA METODOAK
OREKA MUGIMENDUAN
Ibaiondo 5 behea, Orio • 686 02 05 17

auto Azkue
Olaskoegia z/g
AIA-ORIO
943-13 04 38

ARDORA arraindegia
Eusko Gudari, 4
943-09 28 27 623 47 57 52
ardoraarraindegia@yahoo.com
ORIO

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA
Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA
anorgatxiki@gmail.com
www.cristaleriaanorgatxiki.com
943-37 17 33 · 610 45 93 45
· Eraikin komertzialak
· Kristaldura bikoitza
· Segurtasun beirak
· Dutxako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com
AUTO - LAN C. B.



arkaitz taberna
orio
- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA
Terraza ederrarekin giro ezin hobea
abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

fontana iturgintza
Zerbitzu teknikoa 24 ordu
iturgintza · gasa · berogailuak
· Komun eta sukaldeen erreforma
· Galdara eta termo elektrikoen instalazioa
· Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
· Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
· Zoru erradiatzailea
Arrantzale kalea, 3 · ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontaneria-fontana.com
943-53 98 88 · 661 26 28 28

azkue karrozeriak
Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK
TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudarien kalea, 44
943-83 27 47
CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37

bai euskaraz
Beilatokia
Lekualdatzeak
Eginbide guztien tramitazioa
Zarautz
24 ordu
zure zerbitzura
Araba kalea, 35
ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus

KARKARA
437

2022-03

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
IZENAABIZXXXX
(ARGAZKIPRESSXXX)

Aurkibidea

5 **Iritzia**
Iñigo Gaiton
Biziberritze Planaz
6 **Hitz tantak**
Aitziber Arzallus
Gaizka Iruretagoiena
8 **Izpiak eta hizkiak**
Iñigo Gaiton
Etorkizuna eraikiz
11 **Gutunak**
12 **Akuilua hartuta**
Libe Larrarte
'Sex and the City' eta ahizpatasuna
13 **Nire honetan**
Aitziber Arzallus
Zenbat kostatzen zaigun...
14 **Erreportajea**
Iñigo Gaiton
Biziberritze Planak dakarrena
23 **Herrian galdezka**
Oriaren Jaitsiera pasa ondoren,
zer tankera hartzen diezu etxeko traineruei?
25 **Ikasleak idazle**
Lardizabal herri eskola
26 **Oroimenaren kutxa**
Iñaki Iturain
Neskak kirolean abiatu zireneko iraultza
32 **Erreportajea**
Aritz Pardina
Errikotxia bertso eskolan, ahotsak ehunduz
37 **Erreportajea**
Aitziber Arzallus
Sekretu bakarra, inurri lana
40 **Iritzia**
Eli Huegun
Zintzilik
41 **Euskara**
Jabier Zabaleta
Salto bat aurrea
42 **Plazan bazan**
44 **Zerbitzuak**
45 **Agenda**
46 **Puntua jarrita**
Iker Gurrutxaga

KARKARA

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730 AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus

Erredaktoreburua
Aitziber Arzallus
Erredaktorea
Iñigo Gaiton
Diseinu arduraduna
Maria Lopez
Publizitatea
Leire Martija

Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Aritz Pardina
Iñaki Iturain
Eli Huegun
Jabier Zabaleta
Naiara Larrañaga

Banatzaileak
Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Antza Inprimategia (Lasarte-Oria)
Lege Gordailua: SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 3.450 ale

IGLESIAS SARRAILAGILEAK
24orduko zerbitzua
iglesiascerrajeros@yahoo.es
www.iglesiascerrajeros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08
- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

Gabon TABERNA
Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09

Joseba AROZTEGIA • CARPINTERIA
687 683 427
josebaarotza@gmail.com
ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROZTEGIA OROKORREAN

EGARMENDIA
Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak
943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

KAÏOA
kaioa_denda
www.kaioa.es

ITZIAR KIROLAK
Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03

%100 etxean egina
PIZZERIA KALETA
Arrantzale kalea, 10
943-24 89 46

Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea
Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

Katu Horia
albaitaritza klinika
ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99
larrialdiak
668891129

kutixi kafetegia
Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17

LASTER DESATASCOS
· Libraketak
· Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
· Uholdeetako uren hustuketa
· Teilatu hodien garbiketa
· Saneamendu sareen ikuskapena
· Puzkatutako hobien geolokalizazioa
· Ur jario atzematea
· ...
desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com
24 orduz 688 88 65 36 (Larrialdiak)
Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Biziberritze Planaz

IÑIGO GAITON

Baikor bilatzen dut nire burua azkenaldi honetan. Neguaren ilunik beltzenak atzean utzi ditugulako izango da agian, baina aldeko haize arinak sumatzen ditut buruan, atzera eta aurrera. Erredakziotik atera eta ilundu bitartean lasai surf egiteko denbora dugu dagoeneko, eta horrek ere izango du eragina nire aldartean. Gainean dugu udaberria.

Udalak aurkeztu duen Biziberritze Planari eman diogu aldizkariaren tarterik zabalena. Arraunetxeko aurkezpenean egon nintzen ni ere, eta han hasi nintzen erreportajeari bueltaka. Saioa bukatu aurretik, galderak eta iruzkinak egiteko aukera ireki zuten antolatzaileek, eta ekarpen interesgarriak entzuteko aukera izan genuen. Han aditutakoak buruan, eta txostena irakurri ondoren, bost norbanako eta herriko talde bateko ordezkariak elkarrizketatu ditut banaka-banaka, planaren argazki orokor eta orekatu bat egiteko helburuarekin.

Biziberritze Planari buruzko nire iritziari dagokionez, planak izan ditzake bere ahulguneak, baina egunak gauari minutu asko kendu dizkio dagoeneko, eta nahiago dut argitara egin, lehen aipatutako aldeko haizeen laguntzarekin.

Txosteneko helburu nagusien artean, herriaren izaera indartzea planteatzen du udalak, eta gaia lehen lerroan jarri izana balioan jarri behar da. Duela urte batzuk, oriotarron nortasunaren inguruko lanketa bat egin zen Orioko Curriculuma hezkuntza proiektuaren bidez, eta orain, turismo arloko hausnarketa batetik abiatuta ailegatu dira toki berera.

Moila bazterrean, plana teilatutik hasita eraiki dutela entzun diet batzuei, eta besteei, zimenduak ondo jartzen saiatu direla. Goitik edo behetik hasitakoa izango da, baina egitura bat behintzat badugu aurrean orain, proposamen edo bide-orri bat, nahi dugun herria egiten hasteko edo jarraitzeko.

Bestalde, interesgarriak dira Anuska Esnal alkateak hondartzaren inguruan errepikatu dituen azalpenak. Hondartza zaharrarekin batera galdu zen guztiak herritarron izaeran arrakala bat ireki zuela esan du, Biziberritze Planari lotutako adierazpenetan. Askok dugu min hori barru-barruan, eta alkatearen hitzek herri mailako aitortza bat egiteko balio behar dute: hondartzaren erabateko urbanizazioa huts egin duen proiektu bat izan da, eta herriari mesede gutxi eta kalte ugari eragin dizkio.

Halako gaiak lehen lerroan jarri eta etorkizunera begira zer nahi dugun proiektatzeko balio behar du planak, gure buruari galderak egiteko baliatu behar dugu. Abiapuntu modura ulertuz gero, aukera berriak sortuko ditu eta gauza onak ekar ditzake, baina gogotik lan egin beharko da horretarako.

ABIAPUNTU MODURA ULERTUZ GERO, AUKERA BERRIAK SOR DITZAKE BIZBERRITZE PLANAK

Gaizka Iruretagoiena

TESTUA ETA ARGAZKIA: AITZIBER ARZALLUS

Pena du Gaizka Iruretagoienak (Aia, 1999). Min hartuta dago, eta ez da iritsiko martxoaren 6an jokatuko duten Aiako XI. Mendi Lasterketan parte hartzera. "Lesioren bat izan dudan bakoitzean, presaka bueltatu naiz kirola egitera, baina ikasi dut behar bezala sendatzeko denbora eman behar zaiola", esan du etsipen puntu batekin. Onartua dauka aurten kale egingo duela, eta baita inbidia pasatuko duela ere, korrika ez, baina antolakuntzan jardun beharko baitu. "Lehen ere, proban parte hartzen hasi aurretik, laguntzen ibiltzen nintzen, eta aurtengoan ere hala beharko du". Lanetik etxerako bidean, Asteasu eta Andatza artean, Aiako plazan jarri du hitzordua, lasterketaren abiapuntu eta helmuga izango den lekuan. Kirolerako zaletasunaz eta Aiako probaz hitz egin du.

Mendian korrika ibiltzeaz gain, beste kirolik egiten al duzu?

Bizikletan ere ibiltzen naiz, baina, gehienbat, korrika.

Betidanik izan al duzu kirolerako joera?

Ez, 17 bat urterekin hasi nintzen. Egia esateko, ordura arte nahiko geldia nintzen.

Nolatan hasi zinen?

Aita dezente ibili izan da mendian korrika, anaia pilotan ibiltzen zen, eta nik ez nuen ezer egiten. Zerbait egin beharra neukala eta, korrika hasi nintzen. Hasieran gutxi egiten nuen, lau edo bost kilometro; baina pixkanaka-pixkanaka gustatu, eta gero eta gehiago, gero eta gehiago...

Zenbatekoa izan da parte hartu duzun probarik luzeena?

30 bat kilometrokoak egin ditut, baina hortik gorakorik ez. Gustatuko litzaidake luzeagoak egitea, baina lesioak-eta izaten dira tarteka eta... ea noiz egokitzen zaidan aukera.

Bizikletan ere ibiltzen zarela esan duzu. Lasterketetan ere parte hartzen duzu?

Duatloiren batzuk egin ditut, baina bestela, bizikletan batez ere ibiltzen naiz lesioren batengatik-edo korrika egin ezin dudanean. Korrika egiteko moduan jartzea dezente kostatzen da batzuetan, baina nahiz eta ondo-ondo ez egon, bizikletan ibil zaitezke, gorputza gutxiago behartzen delako.

Ezer ez egitetik, ezer egin gabe ezin egotera pasatu zara beraz...

Hori da, berdin dit zer, baina zerbait egin egin behar...

Egunero entrenatzen al duzu?

Ondo naizela, bai; suabeago edo gogorrago, egunero egiten dut zeozer.

Aurten Aiako mendi lasterketan ezingo duzu parte hartu...

Ez, eta pena da, baina horrelako egoeretatik beti ikasten da zerbait, eta espero dut hemendik ere zerbait aterako dudala.

Zenbat aldiz parte hartu duzu Aiako lasterketan?

Bost aldiz, uste dut.

Eta zenbat aldiz izan zara aiar azkarrena?

Aurreko urtean bakarrik.

Probak 11. edizioa du aurtengoa. Zein da arrakastaren sekretua?

Hau herri txikia da eta hemengo lasterketak agian ez dauka beste batzuek daukaten famarik, baina ibilbidea bera, Pagoetan barrena, oso polita da. Badira lasterketak herri handiagoetan egiten direnak, oso ondo antolatuak eta askoz jende gehiagok parte hartzen dutenak, baina ibilbidearen edertasunari dagokionez, hemengoarekin zerikusirik ez daukatenak. Hemen bezalako parajeak leku gutxitan topa daitezke.

Nongo jendea etorri ohi da?

Gehiena inguruko herrietakoa izaten da, baina gogoan dut behin, Errioxatik autobuskada bat etorri zela.

Zer moduzko parte hartzea espero duzue aurten?

400 laguntzentzat lekua egongo da, eta duela pare bat aste, 300 lagunek baino gehiagok zuten izena emana; beraz, parte hartze polita espero dugu.

Noiz itxiko duzue izen-ematea?

Internet bidezkoa proba baino bi egun lehenago, eta lekurik gelditzen bada, egunean bertan emango dugu aukera, baina gehiago ordainduta.

Etorkizuna eraikiz

ARGAZKIA: IÑIGO GAITON
TESTUA: IÑIGO GAITON

Badator ura behetik gora. Atea itxi arren, beheko zirrikitutik pasatu da barruraino. Saiatuko zara hari bidea oztopatzen, baina aurrera egingo du likidoak, geldiezina delako.

Ura bezalaxe egiten du aurrera hormigoiak, eta gutxien espero duzun tokiraino sartuko da. Sartuko da zure oroitzapenetan, errekreoetan jolasten zenuen belardi eder eta gozagarrian; sartuko da azken zentimetroraino, eskolaren ondo-ondoraino, modu lotsagabean.

Hezkuntza omen da gizarte hobe bat erakitzeko oinarria. Eraikitzea zer den, ordea, modu desberdinetara uler daiteke, irudian ikus daitekeen modura: banketxe baten kartela, eraikuntza enpresa batek altxatutako bi bloke berri eta atzean, eskola publikoa. Denak ere *Etorkizuna eraikiz*, diputazioaren esloganak dioen modura. Norbere erara.

zazioa
ciación
www.kutxabank.es

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro
Erronka berriei aurre egiteko, aldatu beharra dago.
Iritsi da TicketBAI.
Enpresek aurrera egiten dutenean, Gipuzkoak aurrera egiten du.
TicketBAI
GIPUZKOAN
gipuzkoa.eus/ticketbai

22.korrika
aek
HITZEKIN
bertako
igogailuak | ascensores
GIPUZKOA
943 903 450
EUSKARA, GURE HELBURU KOMUNA
www.bertako.eus

izeta
iz
SAGARDOTEGIA
Gure ateak zabalik daude,
zatoz gure sagardoa dastatzera
URDANETA BIDEA, AIA.
ERRESERBAK: 943-13 16 93 · SAGARDO ESKARIAK: 678 00 34 83
WWW.IZETA.ES/HOME · IZETASAGARDOTEGIA

666 047 535
@OSAI_ARKITEKTURA
OSASIAIN@GMAIL.COM
ALMIRANTE OA KALEA 1, 1º
20810 ORIO
OSAI
arkitektura
ARKITEKTURA - ERREFORMAK - BARNE DISEINUA
SUKALDE ETA KOMUN PROIEKTUAK
DISEINU ETA AURREKONTU PERTSONALIZATUAK
ALTZARI EXPOSIZIOA

Jubilatu eta pentsiodunen eguna ospatuko dugu

ORIOKO ZAHARREN BABESLEKUA

Datorren martxoaren 23an, Jubilatu eta Pentsiodunen Eguna ospatuko dugu, asteazkenarekin. 12:00etan meza izango da Elizan, eta ondoren, bazkaltzera joango gara Errasti sagardotegira. 13:00eta bi autobus aterako dira Goizeko kafetegiaren aurretik, eta 13:30ean beste bi. Bueltako autobusa, 18:00etan jarri dugu.

Bazkaritarako txartelek 20 euroko prezioa izango dute, eta txartelen salmenta hilaren 14 eta 15ean egingo da plazan, 16:30ean hasi eta 18:30era bitartean. Txartelak erosi ahal izateko, eguneratuta eduki behar da elkarteko bazkide karneta, eta bi egun horietatik aparte, ez da txartelik salduko.

Zatoz gurekin, primeran ibiliko gara!

Txakurrak eta jabeak

HERRITAR BAT

Harrigarria egiten zait, oraindik ere, txakurrak dituzten zenbait herritarren jarrera. Txakur bat ikusten duzu, lasai-lasai, herriko denda edo etxebizitza baten paretari pixa egiten, eta jabea beste aldera begira; ikusten duzu kaka egiten, eta inguruan inor ez badabil, mokordoa nola geratzen den han, izan gero umeek jolastuko duten zelai batean edo pasealekuan. Ardura pixka batekin jokatu, mesedez, txakurren jabe zaretenok. Animaliek ez dute errurik, nahikoa dute zuek aguantatzen.

ARDURA PIXKA BATEKIN JOKATU EZAZUE, MESEDEZ, ANIMALIEN JABE ZARETENOK

JAIOBERRIAK

- **Paul Oliden Oteiza.**
Orion, otsailaren 3an.
- **Amadeo Marziali Arzuaga.**
Orion, otsailaren 9an.

HILDAKOAK

- **Eugenio Aranburu Azkue.**
Orion, otsailaren 3an. 62 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAk eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAk ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAk esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAra bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

AKUILUA HARTUTA

LIBE LARRARTE

'Sex and the City' eta ahizpatasuna

And Just Like That..., *Sex and the City*-ren azken denboraldia, ez da askok esaten duten bezain txarra. 1998tik 2004ra emititu zen *Sex and the City* eta 2021ean etorri da sekuela hau. Protagonistek ez dituzte 30 urte, 50etik gora baizik. Carrie (Sarah Jessica Parker), Miranda (Cynthia Nixon) eta Charlotte (Kristin Davis) bueltan dira beraien aurpegi operatuekin. Miranda libratzen da, ez du botoxik aurpegian. Eta Samantha (Kim Cattrall) falta da, Sarah Jessica Parkerrekin haserretuta dagoelako (bizitza errealean alegia), baina bere espiritua presente dago eta paper garrantzitsua betetzen du bukaerara arte (laguntasun handiekin gertatzen den bezela).

Berandu hasi nintzen 90eko hamarkada bukaerako klasiko hau ikusten, pereza eman izan dit beti. Behin hasita, ordea, obsesionatu egin nintzen eta lagunekin geratzean, bakoitza zein pertsonaia zen pentsatzen egoten nintzen. Etxean nengoenean telesaila ikusten, lagunekin egon nahi nuen kanpoan gosaltzen, bazkaltzen eta afaltzen, *Sex and the City*-n bezela (beti jaten duten kanpoan, diru asko dute), eta lagunekin nengoenean, berriz, etxean egon nahi nuen telesaila ikusten. Etengabeko borroka zen.

Ezin esan daiteke telesaila feministaren denik, arrazoi askogatik. Are gehiago, hasierako denboraldia ikustean shock egoeran geratzen da bat gauzak zenbat aldatu diren ikusita (hoberako). Izugarri atzerakoia eta matxista da (eta nahiko arrazista, klasista...). Gogoan dut puzkarraren kapituloa. Carrieri puzkar bat ateratzen zaio Bigekin (Chris Noth) ohean dagoen bitartean, eta sekulako krisi existentziala eragiten dio. Gosari batean, bere neskalagunei aholkua eskatuko die. Bigek berarenganako interes guztia galdu duenaren susmoa du Carriek, puzkarraren ondorioz. Samantha eta Charlotte ere nahikoa bat datoz. Charlotte (denetan atzerakoeina dena) izugarri asaldatuta dago. Mirandak ezin du sinetsi puzkar txoro batek horrelako drama eragin diezaiokeenik

ORIO EZ DA MANHATTAN, BAINA OSTIRAL GAUA DA, LAGUNAK BILA JOAN ZAIZKIZU LANERA ETA AFALTZERA ZOAZTE

HAUXE BAI JENEROA!

bere lagun ustez argiari. Hori da dagoen maila, ideia bat egiteko.

Denboraldi berri honetan ordea, badirudi beraien akatsez ohartu eta konpontzen saiatu direla. Gehiegi saiatu direla. Bat-batean, LGTBI+ kausa guztien banderadunak dira: Miranda lesbiana egiten da (sorpresa!) eta pertsona ez-bitar latino batez maitemintzen da, Che Diaz (Sara Ramírez); Charlotten alabetako bat, Rose (Alexa Swinton), ez da neska sentitzen eta Rose izatetik Rock izatera pasatzen da; egun batetik bestera, denek lagun arrazializatuak dituzte...

And Just Like That... den bezalakoa da: emakume hetero (Miranda izan ezik, beste behin) zuri, dirudun batzuen bizitza New Yorken. Baina nik *Sex and the City*-n pentsatzen dudanean, laguntasunean eta ahizpatasunean pentsatzen dut. Gai zentrala hori delako. Beti izan da eta izaten jarraitzen du. Carrie, Miranda, Charlotte eta Samantha, beti daude hor elkarrentzat: elkarri dena kontatzen diote, elkar zaintzen eta laguntzen dute, barre egiten dute, haserretu eta adiskidetu egiten dira. Beraiena, bizitzako harremanik luzeena eta ederrena delako; lagunak direlako.

Orio ez da Manhattan. Hemen ez daude Carriek edaten dituen cosmopolitan koktelak, baina ostiral gaua da eta lagunak zure bila joan dira lanera. Kolon Txikin afalduko duzue. Luis Cañas botila bat eskatuko du zure lagun minetako batek eta zuen asteaz hitz egingo duzue. Notizia tristeak egongo dira, baina barrez ere lehertuko zarete. Zuena ere, existitzen den harremanik ederrena delako; lagunak zaretelako.

NIRE HONETAN

AITZIBER ARZALLUS

Zenbat kostatzen zaigun...

Aldizkari hau Martxoren 8aren bezperetan jasoko duzue etxean, eta bageneukan asmoa emakumeei aparteko presentzia emateko. Ez egun horren harira erreportaje berezi bat landuta, baizik eta normalean gurean ateratzen ez diren aurpegiei lekua eginda. Saiatu, saiatu gara, eta baten bat animatu ere egin da, baina zenbat kostatzen zaigun oraindik... Kalabaza bat baino gehiago jaso ditugu bidean, eta horrek zer pentsatua ematen du.

Egia da ez dela erraza herri guztiak irakurriko duen zerbait idaztea edo herri guztiaren aurrean iritzia ematea, artikulua zure izenez sinatzea, eta, gainera, sinaduraren alboan argazkia jartzea. Baina zaila bezain garrantzitsua dela iruditzen zait, noizean behin bada ere, ahalegin hori egitea. Eskerrik asko, beraz, ausartu zareten guztioi, eta hemendik, animatzeko deia egin nahi dizuet beste guztioi.

Izan ere, herri honetako emakumeek badute zer kontatua, eta protagonistek beraiek ezin duten kasuan, bada haietaz zer kontatua. Begira, bestela, Iñaki Iturainek *Oroimenaren Kutxa*-tik zenbat emakume atera dituen eta Joxe Mari Genovak, dendaren historia azaltzen hasita, zer nolako omenaldia egin dion amari. Merezitako aitortza, inondik ere.

Biziberritze Planak dakarrena

Agintaldi honetan ondutako proiektu estrategiko bat aurkeztu du udalak: Biziberritze Plana. Datozen urteetarako bide-orria izan nahi duen dokumentuak bi helburu nagusi ditu: batetik, herriaren izaera indartzen lagundu nahi du; eta bestetik, turistak herrira erakarri nahi ditu, baina modu jasangarrian. Testua eta argazkiak: **Iñigo Gaiton.**



Biziberritze Plana plazaratu zuen udalak otsailaren erdialdera, azken bizpahiru urteak egitasmoa ontzen eman eta gero. Arraunetxen egindako aurkezpenaren ondotik, herritarrek eskura dute ehundik gora orrialde dituen dokumentu mardula. Txostenean zehazten denez, planak helburu hau du: "Oriok etorkizunean izan beharko lukeenaren inguruko ikuspegi partekatua lortzea eta hori gauzatu ahal izateko proiektuak zehaztea". Bide horretan, erronka nagusi honi aurre egitea proposatzen dute: "Turismo eta ekonomia eredu jasangarri eta berritzaile baten lidergoa hartuz, merkatuan posizionatu behar du Oriok, herriko ekonomia suspertuko duen izaera bizi eta integratzaile eta euskalduna merkatuan balioan jarriz".

Biziberritze Planak mahai gainean jartzen dituen beste erronken artean, herritarren ongizatea bermatzeak ere lehentasunezko tokia du: "Planak izaera integratzailea izan behar du, herritarren beharrak asetu eta horien ongizatea bermatu, bisitariak turismo jasangarri baten ikuspegitik erakarriz (...) Herritarrek plana sortzen lagundu eta bere egin behar dute".

Laburbilduz, hurrengo urteetarako bide-orria izan nahi duen egitasmo honek bi xede nagusi ditu. Herritarren nortasuna indartzea litzateke lehena eta "lehentasuna duena", udaletik maiz errepikatu duten modura. Ildo horretan, azalpen hauek egin zituen Anuska Esnal alkateak urtarrileko udalbatzarrean, Biziberritze Plana aho batez onartu ondoren: "Hondartza zaharraren galerak haustura bat

Herriko ondarea balioan jarri nahi dute Biziberritze Planaren bidez.

Udalak otsailaren 10ean aurkeztu zuen Biziberritze Plana jendaurrean, Arraunetxen egindako ekitaldian.

supostau zuen herriaren izaeran, eta ordutik, kokatu ezinik ibili gara, zer ginen eta zer garen definitzeko zailtasunekin. Gure nortasunarekin berriro konektatzen lagundu nahi du plan honek, herritarrei hauspoa eman nahi die, herriaz harro senti daitezen. Hori lortu eta gero kanpotarrak erakartzen baditugu, askoz hobe".

Herriaren izaeran arrakalak eragin dituzten faktoreen artean, arrantzak izandako gainbehera ere kontuan hartu behar da, dokumentuan zehazten denez.

Barrura begirako lanaz gain, planak badu kanpora proiektatutako xedea ere: turistak erakarri nahi dira Oriora, turismo politika jasangarrien bitartez. Bisitari kopurua areagotuz, indarra eman nahi zaio herriaren ekonomia zirkularrari, azken hamarkadetan sortutako desoreka bati aterabidea bilatzeko: arrantza indarra galtzen joan den heinean, zerbitzuen sektoreak —ostalaritza, merkataritza, turismoa— pisu handiagoa hartu du, eta sektore horretako negozio publiko eta pribatuen jarduera ekonomikoa areagotzeko beharra identifikatu dute, herriak diru-sarrerak izaten jarrai dezan.

Turismo planetik Biziberritze Planera

Azken urteotan, udalak urrats bat baino gehiago egin ditu turismo alorra indartzeko xedearekin. Besteak beste, kanpineko zerbitzuak hobetzen joan dira, eta igerileku estaliaren lanak aurten hastea aurreikusten dute. Sailera baliabide gehiago bideratuz, turismo teknikari postua ere sortu zuten udalean, eta, ildo berean, neurrira egindako turismo plan baten beharra identifikatu zuten duela bizpahiru urte. Eskuartean proposamen desberdinak izan ondoren, bozketa egin eta Kultur Atelier komunikazio agentziak aurkeztutako proiektua aukeratu zuten. Hala, diagnosi faseari ekin eta 39 elkarrizketa egin zituzten, herriaren beharrak, indarguneak, erronkak eta abar identifikatzeko. Txostenean jasota dago elkarrizketatuen zerrenda.

Iñigo Exposito herritarrak jardun du Biziberritze Plana sortzeko prozesuaren koordinazio lanetan. Haren hitzetan, elkarrizketa horiek egin ahala jabetu ziren turismo plan bat baino proiektu zabalagoa behar zuela Oriok: "Turismo arloko galderak egin eta herri barrura begirako beharrak ere azaldu ziren bildutako erantzunetan. Herriko sektore desberdinak —ekonomia, euskara, kultura, aisialdia...— indartuko dituen plan batera jauzia ematea erabaki zen orduan".

Plana hiru zutaberen bueltan ontzea erabaki zuten: errioa, euskara eta jasangarritasuna. "Errioaren bueltan mugimendu handiagoa sortzeko beharra azpimarratu zuen elkarrizketatu batek baino gehiagok. Arrantzaren bidez, lehen herriko familia gehienek zuten loturaren bat ibaiarekin, eta ikusi dugunez, errioarekin harremana

HERRIAREN IZAERA INDARTZEA DA PLANAREN HELBURU NAGUSIA, UDALAREN ARABERA

ORIOREN EKONOMIA ZIRKULARRA SENDOTZEA DA ERRONKA NAGUSIETAKO BAT

Errioa da Biziberritze Planaren hiru ardatzetako bat, euskara eta jasangarritasunarkein batera.

berriro estutzeko gogoa eta premia ditu herriak, aukera berriak sor daitezkeelako", zehaztu du Expositok. Diagnosi eta ikerketa lanaren ondoren, ekintza plana diseinatzeari ekin zioten planaren egileek, eta Biziberritze Planari lotutako ekintza sorta zabala egitea aurreikusten da datozen urteetan. Bukatu aurretik, Expositok azpimarra egin dio planaren izaera irekiari, herritarrek ekintzak edo ekarpenak egiteko aukera dutela gogora ekarriz.

Aurkezpenean entzundakoak

Planaren aurkezpenean, herritarrek aukera izan zuten haien irudipenak adierazteko. "Herriaren norabidea markatuko duen plan bat behar zuen Oriok, eta gustura hartu dut plan hau. Erronka polita jartzen digu aurrean", azaldu zuen batek. Beste batek, bere ahotsean jarri zuen oriotar askoren kezka: "Orion lasai bizi gara. Bizi kalitatea dugu herrian, eta hala jarraitu nahi dugu, ondo bizitzen. Hori bermatu behar dugu aurrena, guk eta gure seme-alabek herrian bizitzeko aukera izatea. Turismoa erakartzea ondo dago, baina neurriz".

Orioren izaera definitzeko ariketa egin nahi bada, Biziberritze Planaren hurrengo urratsetan hezkuntza eragileen presentzia bermatu behar dela ere aipatu zen solasaldian. Horrez gain, herritar beraren hitzetan, dokumentuak ez dio erreferentziarik egiten herriak azken urteotan izan duen immigrazioari, eta ezinbestean, hori ere kontuan izan behar dela azpimarratu zuen herriaren nortasuna berrasmatu nahi bada. Ekarpen horiek eta aurrerantzean sor daitezkeenak bilduta, plana era kolektiboan gorpuzten eta garatzen jarraitzea da herriak orain duen erronka handiena.

"Herriaren izaera indartu nahi da planarekin"

ANUSKA ESNAL ORIOKO ALKATEA

Anuska Esnal alkateak azpimarratu duenez, udalak agintaldi honetan ondu duen proiektu mamitsuenetakoa da Biziberritze Plana.

Nondik sortu da Biziberritze Plana egiteko beharra?

Arrazoi desberdinek bultzatu gintuzten hausnarketa hau egitera. Alde batetik, Mutiozabal ontziola irekitzear zela sartu ginen Udal Gobernuan, baina ez genuen nahi, beste zenbaitetan gertatu izan den bezala, bizitzarik edo mamirik gabeko eraikin bat bihurtzea. Gainera, udalaren zenbait baliabidek kohesiorik gabe funtzionatzen zutela ikusi genuen, eta horri guztiari zentzu edo ipar komun bat eman beharra zegoela ikusi zen. Bestalde, herriko ostalaritza eta merkataritza sektoreak ere sarritan helarazi izan dio udalari herria hilik dagoenaren sentsazioa, eta ahots horri erantzun egoki bat bilatzeko nahia ere bagenuen.

Horrez gain, herriaren identitateari lotutako behar bat ere identifikatu genuen. Hondartza zaharraren galerak (lehengo ingurune naturala, kanpin handia, han sortzen zen giroa) eta arrantzaren gainbeherak herritarren nortasunean haustura bat eragin zuten, eta hori berriro indartzeko helburuarekin hasi ginen lanean. Azaldutako guztiaren inguruko hausnarketa abiarazteko tresna izan nahi du Biziberritze Planak, herritarrak ahaldundu eta gure nortasuna indartzeko lanabesa.

Herriaren ondare historiko eta kulturala jarri duzue planaren muinean. Iraganean izan ginen horrek zertarako balio behar digu etorkizunean?

Herritarren ongizatea da udalaren helburu nagusia, oriotarrrok ondo eta aske biziko garen herri bat izatea. Hori posible egiteko ekonomia zirkularra bultzatu behar dugu. Gure ondareari begiratzen badiogu, hori dugu irakaspen nagusia. Garai batean, ontziolek eta arrantzak herri guztia sostengatzen zuen. Bi jarduera horiek lotura zuzena zuten herriko baserri, denda edota tailerrekin, eta kanpotik etortzen ziren langileek ere herrian egiten zuten bizitza bere osotasunean. Mugimendu horrek guztiak ekonomia zirkular bat sortzen zuen, herritarren ongizatea bermatzea ahalbidetzen zuena. Ongizateaz gain, herri izaera ere ematen zion Oriori errioari lotutako jarduerak.

"HERRI IKUSPEGIA BERRESKURATZEN SAIATU BEHAR DUGU ITSAS ONDAREAREN BIDEZ"

Ikuspegi hori lausotu egin da urteekin, eta gizartearen eboluzioak norbere zilborrera begiratzera eraman gaitu; herrian, etxepean kontsumitzea denontzat ona dela ahaztu zaigu. Herri bezala, erronka handia da ekonomia zirkular hori berreskuratzea, eta Biziberritze Planak lagundu nahi du horretan.

Askoren kezka dena plazaratu zuen herritar batek planaren aurkezpenean: Orio bizi-kalitatea duen herria da, lasai bizi gara herrian. Badago hori galtzeko beldurra.

Guztiz ulerkorra egiten zait emozio hori, ingurura begiratu eta guretzat nahi ez ditugun egoerak ikusten ditugulako.

Dena den, Orioko Udalak diru iturriak behar ditu herritarrei kalitatezko zerbitzu eta baliabideak eskaini ahal izateko, eta oreka hori aurkitzen asmatu behar dugu. Modu jasangarrian eta gure nortasuna errespetatuz, bisitariak erakarri behar ditugu, herritarren bizi kalitatea bermatzeko.

"Masifikazioak turismoa ere kaltetzen du"

ADRIAN GARCIA ORIOKO UDALEKO TURISMO TEKNIKARIA

Turismo alorrean, zein da Orioren egungo erronka nagusia?
Paradigma aldaketa handi bat eman da kostalde guztian: orain ez dugu lehengoa nahi. Hau da, lehen turista asko erakartzeari ematen zitzaion garrantzia, eta orain ez dugu bisitari uholderik erakarri nahi. Oriok baliabide kultural eta natural apartak ditu, eta horiekin turismo politika jasangarriak egiten asmatzea izan daiteke herriaren erronka handiena.
Inguruan baditugu masifikatzen diren herriak, Getaria edo Zarautz kasu.

Orion asko dago egiteko turismo arloan, eta aurretik lan asko izate horrek, beste herrietako esperientzietatik ikasteko aukera ematen digu. Biziberritze Planak turismo mota bat jorratzen lagunduko digu, iparrorratza izango da. Euskara, errioa eta jasangarritasuna ardatz hartuta, kanpora begira zer proiektatu nahi dugun definitzen lagunduko digu planak. Zer jende mota erakarri nahi dugun definituko du. Dena den, are garrantzitsuagoa dena, barrura begira jarriko gaitu aurrena; herritarren bizi kalitatea bermatzen lagundu behar digu.
Bateragarriak al dira herritarren bizi kalitatea hobetzea eta turistak erakartzea?
Bai, noski. Turismoa sustatzeak ez du esan nahi herriko kaleak jendez lepo bete behar ditugunik, ezta gutxiago ere. Masifikazioa bera kaltegarria da turismoarentzat, tokia degradatzen duelako.

"Inpresio ona laga zidan aurkezpenak"

IÑAKI MAKAZAGA TXANKA ERREKA HOTELAREN ARDURADUNA

Biziberritze Planaren diagnosi fasean elkarrizketatutako ostalarietako bat izan zen Iñaki Makazaga.
Zer inpresiorekin atera zinen Arraunetxeko aurkezpenetik?
Aho zapore ona laga zidan ekitaldiak. Lan txukuna egin dela iruditzen zait, batez ere diagnosiari dagokion atalean. Ikerketaren alorra landuagoa dagoela uste dut ekintzei dagokiona baino. Biziberritze Plana bera ondu izana lan ona dela iruditzen zait, baina are interesgarriagoa dena, bide-orri bat markatzen digu, hasiera bat bezala ikusten

dut; izan ere, asko dugu egiteko.
Herri mailan, zer urrats eman behar dira turismo alorrean?
Nire ustez, bidegurutze baten aurrean gaude: herriak erabaki beharko du turismotik bizi nahi duen edo ez. Denok nahi dugu herri lasai batean bizi, nik ere bai, baina herri oso lasai batetik ia hilda dagoen herrigune batera tarte txikia dago. Azken urteetan itxi diren negozio eta lokalei erreparatu besterik ez dago horretaz jabetzeko. Prest al gaude herritik kanpora lan egin eta Oriora lotara bakarrik etortzeko? Oreka bilatzea izango da gakoa.
Bisitariekin aurrez aurre lan egiten duzula kontuan izanik, zer botatzen duzu faltan?
Herriko kulturari eta baliabide naturalei lotutako eskaintza zabalagoa, oriotarrek eta kanpotarrek gozatzeko aukera izan dezaten. Urte sasoi batzuetan, negu aldera batik bat, hankamotz geratzen garela esango nuke, herrian planak egiteko aukerarik gabe.

Oria ibaia eta Motondo ingurua. IÑIGO GAITON

Herria naturatik biziberritzeaz

Herrio Natur Taldekoengana ere jo du KARKARAk, Biziberritze Planaren inguruko iritzia eskatzeko. Haien esanetan, positiboa da udalak estreinakoz turismo plan bat modu kontzientean lantzeko iniziatiba hartu izana. "Herriak benetan zer nahi duen jakiteko eta turismo politikak horretara bideratzeko aukera egon daiteke horrela. Orion ez da halako planik egin sekula, eta aurrekari falta kontuan izanik, ez zen lan erraza izango Biziberritze Plana ontzea. Arretaz irakurri dugu herritarron eskura jarri duten txostena", azaldu dute.

Ondare kultural eta historikoan oinarrituz, herriaren nortasuna indartzeko egin nahi den ariketa ere jarri dute balioan, ekarpen bat eginez: "Natur ondarearekin ere gauza bera egitea plantzeatzen dugu, horrek ere lotura zuzena duelako herriaren nortasunarekin. Jende askok ez daki zer natur ondare galdu den hemen, oraindik zer baliabide ditugun eskura eta, batez ere, zer errekupera daitekeen. Hori nabarmendu behar da: Orion ez dugu errekuperatuko arrantzari eta ontziolei lotutako jarduera, hori pasatu da; natur ondarea, berriz, bai. Hezegune bat, adibidez, oso-osorik lehengoratu daiteke, eta horrek balio ikaragarria du. Natura da etorkizuna, eta zaintzen hasten garen momentutik, bi onura lor daitezke: herritarrontzat bizi kalitate hobea, eta bisitarientzat, opor kalitate hobea".

Dokumentuari ekarpenak

Gaiaren lanketarekin jarraituz, dokumentuaren mamiari heldu diote Herriokoek. "Jasangarritasuna da planaren hiru ardatzetako bat. Txostenean jasotzen den informazioari erreparatuz gero, terminoak erreferentzia handiagoa egiten dio turismo edo ekonomia jasangarriari, eta ez horrenbeste ingurumenaren zaintzari", argitu dute.

Bisitari gehiago erakartzeak herrian izango luken eragina aztertzeari ere egin diote azpimarra, eta horrek inguru naturalean eragingo lituzkeen kalteak ahalik eta zehatzen neurtzeari. "Turista gehiago erakarriz gero, zenbat areagotuko litzateke herriaren ur kontsumoa udan? Kutsadura akustikorik sortuko al da? Hondartzari edo errioari emango zaien erabilerak kaltetuko al du ekosistema?".

Errioan zentratuz, dokumentuan jasotzen dena baino modu zabalagoan ulertu behar da, haien iritziz: "Errioa ez da Oriora mugatzen, lotura zuzena baitu Aiarekin eta Usurbilekin, Pagoetako Natur Parkearekin eta Irisasiko basoarekin. Herria ez da bizileku solte bat bezala interpretatu behar, ekosistema baten parte delako; ale bat gara, Usurbileraino iristen den itsasadar zabal batean".

Oriaren itsasadarra babestutako gune bat dela ekarri dute gogora, eta Natura 2.000 sarean dagoenez, badirela horri lotutako proiektu batzuk. "Funtsezkoa da Biziberritze Planaren dokumentuan hori guztia islatzea".

Ekarpen gehiago ere egin dizkiote txostenari. "Aurreko urteetan lan handia egin da herrigintzan, eta dokumentuan faltan bilatu ditugu zenbait erreferentzia: Orioko Curriculuma, Mugikortasun Txostena, Motondoren Berreskuperapen Plana... Aurretiazko lan horrek guztiak Biziberritze Planari gorputza emateko balio behar du". Ezinbestekotzat jo dute ikuspegi guztiak kontuan izatea etorkizunerako planak egiterako orduan.

"HERRIGINTZAN URTEETAN EGINDAKO LANAK PLANA GORPUZTEKO BALIO BEHAR DU"

"Ondarearen transmisioak gazteengana ailegatu behar du"

XABIER ALBERDI HISTORIAN DOKTOREA

Donostiako Itsas Museoko zuzendaria eta Albaolako ikerketa arloko arduraduna da Xabier Alberdi. Euskal itsas ondarearen inguruan duen ezagutza zabala tarteko, bera izan da Biziberritze Planerako elkarrizketatu duten adituetako bat.

Orioren ondareak zertarako balio behar du etorkizunera begira?

Beste zenbait herritan ere badago galdera hori mahai gainean, eta hausnarketak egiten ari dira. Kostaldeko herrien ardatza izan da itsasoa, eta mendez mende, momentu beltzenetan ere aurrera egiteko aukera desberdinak eskaini dizkigu.

Historian zehar, itsasoaren eta errioaren baliabideak modu askotara ustiatu dituzte oriotarrek, eta orain, aldaketa esanguratsu bat egon da, ustiapen modelo horietako batzuk ahitzen ari direlako: ontziolen jarduera eta arrantza, Orioren kasuan. Beste jarduera batzuek, aisialdi eta kirol arlokoek esate baterako, bizirik jarraitzen dute, eta herri guztiek ez dute zorte hori. Errioaren bueltan aukera berriak sor daitezke Oriorentzat, eta horiek balio behar dute herri bezala garatzen joateko.

Ondarearen transmisioak haur eta gazteengana heldu behar duela azpimarratu izan duzu maiz, eta hori ez dela gertatzen, etena dagoela belaunaldien artean.

Hemen ez dago sistematizatuta ondarearen transmisioa, ez hezkuntzan ezta beste esparruetan ere. Herrialde batzuek, berriz, bermatzen dute hori, eta gero nahi dugu haiekin lehiakorrak izan nazioartean. Mundu globalizatu eta lehiakor honetan aurrera egiteko, bereizgarriak izan behar ditu herrialde edo herri batek. Orioren kasuan, haur eta gaztetxoek jakin behar dute ez direla edonon jaio, mendeetako tradizioa duen toki batean baizik, eta horrek inspirazio bezala balio behar die etorkizunari beldurrik ez izateko. Historian aurrera egiteko gai izan den jende baten oinordekoak dira oriotarrak, eta horrek indar bat, bereizgarri bat eman behar die belaunaldi berriei. Garrantzitsua da haien artean kontzientzia hori piztea, baina ez dugu asmatzen transmisioa behar bezala egiten. Oso zaila da gazteengana iristea.

Mutiozabal ontziolak aurten irekiko ditu ateak. Albaola eta Itsas Museoko martxa gertutik ezagututa, zer egin behar da Orion?

Halako eraikinek giro bat sortzeko balio behar dute, funtsezkoa da bizi-bizirik egotea. Borroka eta lan handia egin beharko da Mutiozabalek martxa izan dezan. Halako zentroetan, iragana da lanerako materiala, baina etorkizunak izan behar du helburu nagusia. Ontziolatik pasatuko diren herritarrengan arrastoa utzi behar du, marka bat, jendeak sentitu behar du Mutiozabalek lotura duela bere izaerarekin. Horrez gain, ateak irekita izan beharko ditu, inguruko herri eta nazioarteko zentroekin saretzeko.

Xabier Alberdi, Donostiako Itsas Museoan.

"AUKERA BERRIAK ESKAINI DITZAKE ERRIOAK, ETA HORIEK AURRERA EGITEKO BALIATU BEHAR DIRA"

Eta kanpora begira?

Gaur egun dena errelatoen bidez saltzen da, istorioak kontsumitzen ditugu, berdin auto bat edo Errioxako ardo botila bat erosterakoan. Mutiozabalek, eta orokorrean Orioren ondareak, errelato eder bat sortzeko balio behar du, bisitarientzat interesgarria izango den kontakizun bat.

KORTABERRI
arotz lanak
Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)
kortaberri.arotza@hotmail.com
665 70 33 47

Lizaso Dekorazioa
Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com

libe dietetika
elikadura aholkularitza
Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaletik)
943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com
Osasun elikatuz bizi

MARIJO
ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
943-13 47 29

niko taberna
Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia
Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27

MENDIZABAL AROZTEGIA
Neurriko armairuak eta egurlanak
Altxerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA
Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

ZINKU ERAIKUNTZAK
· Igeltserotza orokorra
· Etxebizitzen erreformak
· Teilatuak
· Sukalde, komunak, etb.
· Eraisketak
deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Ander Zinkunegi
667 74 02 79

PAKO IMAZ
pertsianak
PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak
600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

TRANSPORTES FRIGORIFICOS INDO
Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa
generoa
garraioak
ibilbideak
kamarak
Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Oriaren Jaitsiera pasa ondoren, zer tankera hartzen diezu etxeko traineruei?

ARITZ LARBURU

"Traineru horiak aurrean ikusiko ditugula iruditzen zait, mutilak eta neskak Ohorezko txandetan. Ez nuen Oriaren jaitsiera ikusteko aukerarik izan, futboleko partida bat jokatzera joan behar izan nuelako Bizkaia aldera, eta penarekin geratu nintzen. Neskek bandera irabazi zutela ikusita, pentsatzen dut talde bikaina osatu dutela berriro, eta trapuak astinduko dituztela udan. Mutilekin ere badut esperantza, eta uste dut ekarriko dutela banderaren bat edo beste. Gogo handia dut traineru estropadak ikusteko. Tribu Horia jarraitzaile taldeko Whatsapp taldeak martxan jarraitzen du, eta aurten ere aterako dugu zalaparta pixka bat. Hemendik animoak bidali nahi dizkiet estropalari guztiei; jarraitu gogor entrenatzen, eta udan, egurra!".

IRATZ URKIZU

"Jaitsiera baloratzeko orduan kontuz ibili behar dela iruditzen zait; talde batzuek test bezala hartzen dute estropada, eta beste zenbaitek lehia modura. Nesketan estropalari berri dezente daude, eta bandera irabazteko gai izan ziren. Aurten poz handiak emango dizkigutelakoan nago, aurre-aurrean ibiliko direla uste dut. Mutilak ere goran ikusten ditut, baina zailagoa izango dute. Aurten ere dezente tira beharko da harrobitik, eta gazteei denbora eman behar zaie, haien maila onena eman dezaten. Ziurrenik, udan zehar gai izango dira ezustekoren bat emateko. Zale modura, iruditzen zait oso kritikoak garela askotan, eta ahaztu egiten zaigula, emaitzen gainetik, estropalariek urte osoan egiten duten ahalegina daukan balioa ematen".

FERNANDO LARRAÑAGA

"Ikusi nuen jaitsiera, eta aurten neskak nagusi ibiliko direla esango nuke. Estropalari onak batu dira taldera, eta dudarik gabe, goi-goian ibiliko dira, faborito nagusien artean. Kontxa ekarriko dute. Mutilen kasuan, uste dut balioa eman behar zaiola jaitsieran B taldeak egindako estropadari. Ea mailari eusteko gai diren. Lehen txalupa TKE ligako Ohorezko txandan egongo dela iruditzen zait, baina gogor borroka egin beharko dute horretarako, hortxe-hortxe ibiliko dira. Izan ere, polita da trainerua herriko arraunlari gazteekin osatzea, baina banderak irabazi nahi badira, kanpoko jendea ere ekarri behar da. Zoritxarrez, diruak agintzen du arraunean. Dena den, konfiantza izan behar dugu arraunlariengan; oriotarrak gara, ezin dugu esperantzarik galdu!".

GUKA ZERBITZUAK

JARRI ZURE IRAGARKIA
GURE TOKIKO HEDABIDEETAN

KOMUNIKAZIO MULTIMEDIA

egunkari **1**

telebista **1**

4 aldizkari

7 atari digital



BALEIKE · KARKARA · ERLO · MAXIXATZEN · UROLA KOSTAKO HITZA · UZTARRIA · ZARAUZKO HITZA

www.gukazerbitzuak.eus

LARDIZABAL HERRI ESKOLA
INTZA ITURAIN

Ezagutzen al duzue?

Azken hilabetean biografiak lantzen aritu gara. Zer den biografia bat, biografia ezberdinak irakurtzen, nola idazten diren, kronologia zaintzen… Eta azken ariketa pertsonaia ospetsuen inguruan egin dugu: beraien bizitzaz dakigunaz gain, ez dakigun informazioa topatzen jardun gara, eta batzuetan, sorpresa ederrak ere hartu ditugu! Gelako bakoitzak gustuko duen pertsonaia ospetsua aukeratu du; pertsona ospetsu, kirolari nahiz abeslari ugari azaldu dira. Bakoitzak famatu bati buruz idatzi duen arren, gero hitzaldi bat prestatu dugu. Hitzaldia ez da izan biografia irakurtzea; jolas bat egin dugu: pertsonaia horren inguruan topatu ditugun datuak pista moduan esaten ibili gara, gainontzekoek asmatzeko.

Ariketa hori asko gustatu zaigunez, pentsatu dugu KARKARAko irakurleei ere jolasa proposatzea. Aukeratu dudan pertsonaiaren biografia egiteko informazio bila jardun naizenean, oso gauza interesgarrien berri izan dut. Ea asmatzen duzuen nori buruz ari garen!

Pista batzuk

Hona hemen lagungarri izango zaizkizuen pista batzuk:

-Mundu guztian ezaguna da, gizonezkoa da, eta kirolari da. Bere kirolean irabazi daitezken txapelketa nagusi guztiak irabazi ditu; gainera, gehienak behin baino gehiagotan. Bere ezaugarri nagusiena da oso langilea dela, ez duela inoiz amore ematen.

-Munduko jokalari onenetarikoa izan arren, gaixotasun sendaezin bat dauka. Dena dela, aurre egiten dio garaipenak lortuz.

-Espainiako irla batean jaio zen. Familian ere baditu kirolari ospetsuak izandakoak, nahiz eta berak egiten duen kirolarekin zerikusirik ez izan.

-Bera jaio zen herrian kirolari gazteen formakuntzarako eskola bat sortu du.

-Txapelketa bakoitzean arropa desberdinak erabiltzen ditu, eta buruan beti zinta batekin jokatzen du.

-Bere irudia auto marka bati lotuta dago, eta baita beste marka komertzial batzuei ere.

Asmatu al duzue? Hona hemen azken pistak. Seguru hauekin asmatuko duzuela; irakurri arreta jarriz eta animo:

-Orain dela gutxi kopa bat irabazi du eta tenis jokalaria da.

Zein da?

TXAPELKETA BAKOITZEAN ARROPA DESBERDINAK ERABILTZEN DITU, ETA BURUAN BETI ZINTA BAT

ALAI ESTEVEZ

Zientzia museoan

Orain dela gutxi Eureka! zientzia museoan izan ginen; ederra plana!

Bost taldetan banatu ginen, eta taldeka sartu ginen museora. Lehendabiziko gela *scape room* bat zen. Lau kutxa zeuden, kandaduz itxita. Haiek ireki eta pistak lortzen joan ginean. Gure taldea ez zen oso ondo ibili, baina, pixkanaka, aurrera egin genuen.

Gero, *Lego gela*-ra joan ginen. Han, *We Do* egin genuen. Nire bikotea Joel zen, eta planoen laguntzarekin, gure robota muntatu genuen. Tablet batera konektatu genuen lasterketa bat egiteko, baina inor ez zen helmugara iritsi. Jarraian, gure robotari hobekuntzak egin genizkion, baina engranajerik eta gurpilik erabili gabe. Robotek bateriarekin funtzionatzen zuten, eta bururatu zitzaigun lau bateria jartzea lasterketa irabazteko, baina bi bakarrik jar zitezkeen.

Ondoren, erakusketa batzuk ikusi, eta hamaiketakoa jatera atera ginen. Urarekin jolasean ibili ginen, hitz ezkutuetara ere bai, eta berriz erakusketak ikustera sartu ginen. Axolote bat zegoen, animalia oso berezia; olograma moduko bat; fakirra deitzen zioten iltzezko ohe bat... denetarik.

Miramonen bazkaldu genuen, erromatarren koliseo bat ematen zuen leku batean. Gero, pixka baten ezkutaketan ibili ginen eta bueltako autobusa hartu behar izan genuen.

Oso ondo pasatu genuen, baina ibilaldia motza egin zitzaidan. Joan zaitezte Eureka! zientzia museora, Tabakalera auzora eraman aurretik.

Neskak kirolean abiatu zireneko iraultza

IÑAKI ITURAIN IITURAIN@GMAIL.COM
ARGAZKIAK: UTZITAKOAK

2018ko udan Orioko emakume helduz osatutako traineru batek joan-etorria egin zuen Orio eta Bilboren artean, arraunean. Ekimenak izen esanguratsua zuen: *Zergatik ez?* 2021ean Behobia-Donostia lasterketan Orioko 29 neska iritsi ziren korrika Donostiako Bulebarrera, eta Aiako sei. Gaur egun Orion neskak kirol askotan dabiltza: korrika, arraunean, futbolean, softbolean, saskibaloian, eskubaloian, harri jasotzen, judoan…

Aia eta Orioko emakume batzuk, gainera, oso maila altura iritsi dira, bakoitza bere espezialitatean. Karkara.eus albistegian ohikoak bihurtu dira azken urteotan era honetako titularrak: "Orioko Arraun Elkarteko Eva Mirones sanjuandarra Atenaseko Joko Olinpikoetan lehiatu da (2004)". "Sara Peñak irabazi du Urdazubiko kontrabandisten mendi lasterketa". "Ainara Manterolak Venezuelako futbol selekzioaren prestatzaile ardura hartu du". "Nerea Amilibia aiarrak 100. txapela irabazi du mendi lasterketetan". "Eli Lasa aiarrak txapela jantzi zuen 1998an Mexikon jokatu zen munduko paleta txapelketan". "Orioko herriak ongi etorri bikaina egin dio Oiana Blanco judokari, Londresko Olinpiadetatik (2012) itzuli denean". "Kristina Kortak munduko txapelketan parte hartu zuen Frantzian (1997)". "Idoia Etxeberriak 163 kiloko harria altxatu du (2016)". "Orioko Bate Bizkorrak taldeko jokalari batzuk euskal selekzioarekin lehiatu dira Bartzelonan: Elena Etxeberria eta Uxua Zoroza jokalariak eta Igone Etxeberria taldeko medikua (2021)". "Nadeth Agirrek patroi onenaren saria eskuratu du traineruen ligan (2019 eta 2020)". "Nahia eta Garazi Eizmendi ahizpa aiarrak nagusi Gipuzkoako Pilota Txapelketan (2021)"...

Maila horretako lorpenak pentsaezinak ziren orain dela gutxi. Gauzak asko aldatu dira nesken kirolean: jolaste hutsetik jokatzera igaro dira, lehiatzera; ikusle soil izatetik kirolari izatera. Hein batean, eskola kirolaren emaitza da hori. Gaur egun, mutilak bezala, txikitatik abiatzen dira bide horretan.

Orain gauza normala da errioaren ondoko ibilbideetan neskak korrika ibiltzea. Orain bai. Baina herriko oraingo aitona-amonek haurtzaroan ez zuten inoiz kirolik egin eskolan, ezta gimnastikarik ere; eta gazte zirela, emakumeek ez zuten korrika egiten kalean, ezta antzekorik ere. Ez zegoen sozialki onartuta.

Nesken oztopoak kirolean aritzeko

Bitxikeria moduan, aipagarria da 1965era arte emakumeak ezin zirela lehiatu bizikletan; ordura arte, bizikletan ibiliz gero, ama izateko ahalmena galtzeko arriskua zuelako ustea zabalduta baitzegoen.

Oraindik ere, neska asko abiatzen dira kirol batean edo bestean, baina urte gutxira batzuek utzi egiten dute alde batera praktika hori. Maialen Lujanbiok bertso bat kantatu zuen, oztopoak gainditu, ahalegindu diren emakumeentzat: "… baina behin behar ta omendu behar / gaur emakume guztiak / ta bereziki zernahi bidetan / abitu ziren gutxiak / gizarte honek bere ametsen / erdibidean utziak".

Iazko azaroaren 25ean, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunean, Orioko udalbatzarrean alkateak bi sexuen arteko berdintasunerako diagnostikoan jasotako zenbait emakumeren adierazpenak irakurri zituen. Haietako batek hauxe zioen: "Ni, ama izanda, kirol egitera noanean, batzuetan galdetzen didate nora zoaz?, kirola egitera? Eta

Saskibaloia izan zen Orion lehenengo talde kirola. Argazkia 1975ekoa da. Jokalariak, goian, ezkerretik eskuinera: Belen Azkue, Luzi, Rosa Vèlez, Marian Urkizu, Patricia Moran; behean: Soraya Herranz, Ima Azkue, Cristina Baylin, Arantxa Ibarbia eta Arantxa Arruti.

umeak non daude? Hori gizonei ez zaie galdetzen".

Udane Ostolaza harri-jasotzaile gazteak ETB1en hitz hauek esan zituen: "Kontuz ibili, min hartu gabe, hori mutilena da…, ba nik horri kontra egingo diot, gizonena baldin bada, nik demostratuko dut neskentzat ere badela". Udaneri bidea Orioko beste neska batek zabaldu zion, Idoia Etxeberriak.

Nesken kirolaren hastapena Orion

Enbil eta Salsamendi abizenak izango dira Orion pilota jokoaren historiari lotuenak. Pilotari familian jaio ziren Matilde Salsamendi eta Maria Luisa eta Arantxa Enbil ahizpak. Hirurak ausartu ziren, garai hartako (1950eko urteak) moral kontserbadorearen kontra, erraketa hartu, frontoira joan eta gizonekin batera pilotan jokatzen. Matilde indar handiko neska zen; eskaintza izan zuen raketista izateko, Madrilera joan eta profesionaletan aritzeko. Neska izateak bide hori itxi zion, ez zen posible izan. Maria Luisa eta Arantxa Enbil, pilotarien alaba eta bilobak, aitarekin hasi ziren frontoira joaten. Arantxa ausarta zen, herriko kaleetan moto Lambretta batean ibiltzen zen.

Hogei eta gehiago urte pasatu ziren beste emakume batek haien lekukoa hartzeko, Pakita Redondo izan zen, 1970 aldera. Aian, berriz, Eli Lasa nabarmendu zen pala txapelketetan handik beste hogei bat urtera.

1970 inguruan, Lizargate baserriaren ondoko zelairaino joaten ziren herriko neska batzuk, han bi saski zeuzkaten jarrita, eta bertan ibiltzen ziren saskibaloian edo. Orduan, herrian egiten ausartzen ziren ariketa ia bakarra errioan igeri egitea zen.

Eugenio Cotadok Karkarako elkarrizketan (2020ko uztaila) hauxe adierazi zuen: "Orion

Arantxa Enbil eta bere aita Enrike Enbil, Sara herrian Enrikeri egin zioten omenaldi batean, goizeko errebote partidaren ondorengo bazkarian.

surfean hasi ginenean (1970eko urteetan), bazen tarteka olatuetan irristaka ibiltzen zen emakume bat, Maria Jose Lacadena, seguru asko lehenengoa Orion".

Taldekako kiroletan, saskibaloia izan zen aitzindaria nesketan Orion, 1970eko hamarkadaren lehen erdian. Hauxe dio *Orio, Historia argazkitan* liburuak: "Aurreneko ahalegin serioa saskibaloian egin zen; horrek ireki zien bidea neskei. Urte gutxian oso maila altua lortu zuten: Gipuzkoako txapelketa irabazi eta Murtziaraino ere iritsi ziren lehiatzera. Herriko neska gazte asko ibili ziren taldean".

Orio futbolean liburuak hauxe dio Orioko futbol femeninoaz: "Zaragueta ikastetxeko neskek Zarauzko hondartzako txapelketa irabazi zuten 1985/86 denboraldian, eta talde federatua osatzeko gogoa sortu zitzaien. Horrela, hurrengo denboraldian (1986/87) OFTaren izenean lehiatu ziren aurreneko aldiz Antilla futbol zelaian. Lehen partidan 13-0 galdu arren, ez zuten adorea galdu eta azkenak ez gelditzea lortu eta aurrera segitu zuten". Talde hartan zen Maite Redondo, orain nesken futbolaren ardura duena Gipuzkoan, entrenatzaile eta hautatzaile ere ibili ondoren.

1993tik aurrera, ordura arte ezezaguna zitzaigun joko batek hartu zuen lekua Orion: softbolak. Koro Arratibelek eta Manu Peñak ekarri zuten. Kirol honetan neskak aitzindari izan ziren. Jone Iparragirre izan zen lehen softbolaria, geroztik asko ibili dira Orioko Bate Bizkorrak izeneko taldean. Sekulako maila erakutsi dute urte askoan; batzuk nazioartean ere ibili dira.

Nesken arrauna

Ia XXI. mendean sartu arte, emakumeak Orioko arraunean jokatu duen rola eginkizun sinbolikoetara mugatu da: banderen amandrea izan, arraunlarien erizain eta arropa garbitzaile, ongi etorriak prestatu... Maria Frantziska *Xordo* arraunlarien jarraitzaile sutsua izan zen, estropada guztietara joaten zen haiekin, etxean prestatutako ogitartekoak hartuta.

XX. mendearen azken urteetan hasi ziren neskak lehenengo aldiz arraun lehian. Leire Alustiza izan zen lehenengoa arraunean domina bat eskuratzen (1987an, Mequinensan) Espainiako txapelketan zilarra skiffean, kadeteetan. Garai bertsuan ibili ziren Ainhoa Gozategi, Kristina Korta eta Eder Etxeberria ere, gaur egun kirol mediku lanetan diharduena.

2010ean osatu zuten neskek trainerua lehenengo aldiz. Nadeth Agirre traineruko patroiak gogoan ditu kuadrilla osatzeko izandako zailtasunak eta, tarteka, kontra entzundako hitz pozoitsuak. Baina aurrera segitu zuten, eta azken urteotan maila bikaina lortu dute: 2019 eta 2020an traineruen ligan eta Donostiako estropadan nagusitu ziren; eta herriak ongi etorri izugarria eskaini zien.

Marivi Tarantino, atletismoan

Atletismoan ere ibili ziren herriko hiru neska, 1960ko urteetan, Donostiako Real Sociedad taldean: Marivi Tarantino eta Mirentxu eta Arantxa Campos ahizpak. Tarantino izango da Orioko lehenengo emakumea kirola serio praktikatu zuena, alegia federazio fitxarekin, eta

entrenatu eta txapelketetan lehiatu zena. Marivirengana jo dugu, eta hauxe da berak atletismoaren munduan egindako ibilbideaz kontatu diguna.

"Atletismoak asko eman dit"

Gerra bukatu ondoren (1939), Espainiako gobernuak galarazi egin zuen atletismo femeninoa. 1963an onartu zuten emakumeak ere egin zezakeela atletismoa. Urte hartan bertan, Gipuzkoako Atletismoko Federazioa emakumeentzako lehiaketak antolatzen hasi zen.

Orion herriko mutil batzuk bazebiltzan atletismoan. "Haiek proposatuta, neska batzuek probak egin genituen palotetan eta hondartzan; eta hiru animatu egin ginen, Mirentxu eta Arantxa Campos ahizpak eta ni, eta Donostiara jo genuen, Anoetako estadio zaharrean proba batzuetan parte hartzera. Nahiko ondo ibili ginen, itxuroso".

Hirurok fitxatu zituzten Donostiako Real Sociedad taldean. "1963ko urrian neguko entrenamenduetan hasi ginen, ikasketengatik asteburuan bakarrik. Garai hartan adin guztietako neskak denak batera ibiltzen ginen, seniorretan".

Gerra ondorengo Espainiako lehenengo txapelketa jokatzekoa zen Bartzelonan, Montjuiceko estadio zaharrean. "Nik, luzera jauzian, txapelketan parte hartzeko gutxieneko marka eman nuen". Autobusez joan ziren Bartzelonara. "Abuztua zen, hamabi orduko bidaia, 30 atleta, tartean lehen aldiz hiru emakume. Nik 13 urte nituen; gurasoek onartu zuten ni joatea Gipuzkoako Federazioak antolatua zelako, eta Migel Illarramendi (pertika jauzian) eta Antonio Campos (jauzi hirukoitzean) oriotarrak ere taldean zirelako".

Kirolerako arropa egokirik ez zutela esan du Tarantinok: "Ez genuen txandalik, ezta atletismoko zapatilarik ere; Wamba xume batzuekin ibiltzen ginen korrika eta saltoka. Gizonezko atleta txiki batek utzi zizkidan iltzedun zapatilak jauzi egiteko, harenak zirelako txikienak. Halere, finalean sartu nintzen, eta seigarren gelditu.

Orioko Bate Bizkorrak softbol taldeko neskak, Orioko Antilla futbol zelaian, 1994. urtean, taldea sortu berritan.

1964an, Anoetako estadio zaharrean, Real Sociedad taldeko atletismoko neskak, Burgosko taldekoekin. Eskuinetik bigarrena: Arantxa Campos zena; eta laugarrena: Marivi Tarantino.

Marivi Tarantino Salsamendi luzera jauzian, Tolosako Berazubi estadioan. Espainiako Txapelketan, 1967. urtean, bigarren geratu zen, zilarra; eta 4x100 metroko lasterketan, urrea, Gipuzkoako taldearekin.

Bidaia hartako esperientzia errepikaezina izan zen niretzat. Horrela hasi nintzen, eta hamar urtez segitu nuen, beti Errealarekin eta Gipuzkoako Federazioarekin".

1964an hasi zen erregulartasunez entrenatzen. "Gogorrena egiten zitzaidan egunero Oriotik Donostiara kirol poltsa astun harekin ibiltzea, arropa eta liburuak dena batera. Orduan bitxia zen emakume bat korrika, saltoka edo jaurtitzen ikustea; zorionez, saltoak Anoetako estadioaren barruan egiten genituen, kalera gabe, eta ez dut une bereziki desatseginik gogoratzen". Emakume korrikalariek arazo gehiago izan zituztela dio; "kalera beti gizonezko kirolariekin joaten ziren, egoera desatseginak saihesteko".

Atletismoaren barruan, hainbat modalitate probatu zituen. "Urte batzuetan abiadurako lasterketetan eta pentatloian ere ibili nintzen, baina luzera jauzia nuen proba kuttunena. Emaitza onenak ere horretan lortu nituen. Urtero lortzen nuen gutxieneko marka Espainiako Txapelketarako. Gipuzkoako txapela eta errekorra ere bai, behin baino gehiagotan".

Emaitzei dagokienez, urte onak eta urte txarragoak izan zituen. "Espainiako Txapelketan parte hartu nuen urteetan gorabeherak izan nituen; baina urte batzuetan emaitza ederrak, salto onak eta dominak ere bai. Luzera jauzian: 1967an, zilarrezko domina (pista estalian); eta 1968 eta 1970ean, brontzea. Eta 4x100 metroko lasterketan, Gipuzkoako taldearekin, 1965ean zilarra eta 1967an urrea".

Lehiatzeari utzi zionetik denbora dezente pasatu den arren, urte haien arrastoa berarekin darama Tarantinok. "Atletismoa nire bizitzako gauzarik garrantzitsuenetako bat izan da, poztasun ugari eman dizkit eta bizitzan agertzen diren nahigabeei aurre egiten eta horiek gainditzen erakutsi dit. Horregatik, pozten naiz jakinda orain Orioko neska asko dabilela kirola praktikatzen. Zorionak ematen dizkizuet eta zorte handia opa dizuet. Aurrera, neskak!".


08:36
Karkara
ZOZKETAK
Parte hartu gure zozketetan!
Zozketetan parte hartzeko baldintza bakarra bazkide izatea da.
Egin zaitez bazkide
AA
karkara.eus
Karkara
.eus

Errikotxia bertso eskolan, ahotsak ehunduz

Aspaldiko ikasle kopuru handiena du Errikotxia bertso eskolak. Hori baliatuta, Gernikako Lilibertso eskolarekin topaketa eta beste zenbait jarduera iragarri dituzte martxoaren 26rako. Hitzorduaren atarian, Iñaki Gurrutxaga eta Mikel Iruretagoiena irakasleekin eta zenbait bertsolari gaztetxorekin egon da KARKARA.

Testua: **Aritz Pardina.**
Argazkiak: **Iñigo Gaiton.**

Eskolaren lehenengo fasea ez zen erraza izan. Hasiera batean, bertso eskola Orioko Herri Ikastolarena zen. Ondoren, 2008an, Errikotxia kultur elkarteak hartu zuen haren ardura. Trantsizioa ez zen bat-batekoa izan. Gaur egun duten egonkortasuna lortu aurretik, etenaldi ugari izan ditu proiektuak. Inaki Gurrutxaga irakasleak dioenez, horren oinarrian "okerreko planteamendu estrategikoa" zegoen.

Egoera, irakaslearen arabera, honakoa zen: "Udaletxearen bitartez, herriko bi eskoletan lantzen genuen bertsolaritza. Baina horrek ez zituen gure eskolara ikasleak ekartzen. Zergatik? Egonkortze fasean ginelako, umeen eskola ez zegoelako finkatuta". "Izan ditugu helduen taldeak, baina transmisio lana falta zitzaigun, adin txikietara iristea", dio Mikel Iruretagoienak ere; bera da beste irakaslea. Testuingurua, bada, kontraesankorra zen: ume askok lantzen zuen bertsolaritza herrian, baina hori ez zen eskolan islatzen.

Egoera aldatzeko, bi behar nagusi identifikatu zituzten: batetik, deialdiak indartzea; bestetik, gazteenentzako erreferentziak aurkitzea, hots, jarraitasuna izango zuten taldeak osatzea.

Horrela, deialdien formatua aldatu zuten. Gurrutxagak horren garrantzia nabarmendu du: "Lehen, eskoletako deialdiak propaganda modukoak izaten ziren, mezu bat zabaltzen genuen. Orain, berriz, dinamikak sortzen ditugu: jolasak eta bertsolaritzari lotutako dinamikak. Eskaintzen diegu espazio bat bertsolaritza eta sorkuntza gertutik bizi dezaten. Ikusarazi nahi izaten diegu bertsolaritza ez dela

soilik telebistan azaltzen dena". Eta jokabide aldaketak eman ditu fruituak.

Iruretagoienak dio eskola azkenaldian asko bizitu dela: "Lehengo aldean, taldeak erraz sortzen dira. 6-8 pertsonako taldeak osatzen dira, Orio bezalako herri batean, neurrikoak. Eta umeak gogoz etortzen dira; ondo pasatzen dute eta, ikusten dute bat-batean sortzeko gai direla, puntuak ere erantzuten dituzte… Helburua da horrela jarraitzea, denbora daramaten gazteak txikiekin lanean has daitezen". Biek ala biek diote "bere burua elikatzea" bertso eskola ororen berezko ezaugarria dela, eta helburu horretarantz ondo lerratuta daudela.

Egun, 21 ikasle ditu eskolak, adin tarte ezberdineko hiru taldetan banatuta. Helduenek bost urte inguru daramatzate, eta lehenengoz, jarraitasuna du Errikotxiaren egitasmoak. Gurrutxagak dio eskola "saretu" egin dela. Irakasleez gain, elkarteak ere badu talde eragile funtzioa, eta garrantzitsua iritzi diote gurasoen inplikazioari ere. Horrek, esaterako, martxoaren 26an antolatu dituzten jardunaldietara begira, konfiantza ematen die. Askoren artean bultzatzen dute bertso eskola, eta horregatik dira etorkizunarekiko baikor.

Hitzekin jolasean

Eskolako ikasle gazteenek 9-10 urte dituzte. Iruretagoiena aritzen da txikienekin, eta hark eman ditu klaseetako dinamikei buruzko argibideak: "Bertsolaritza jolas mental bat dela erakusten diet. Noski, oinarri bat ematen saiatzen naiz. Gainera, oro har, hona datorrena ez da hutsetik hasten, etxetik dakar zaletasuna, eta horrek asko errazten du

Mikel Iruretagoiena eta ikasle taldea.

Iñaki Gurrutxaga, eskolak ematen.

"LEHENGO ALDEAN, TALDEAK ERRAZ OSATZEN DIRA, ETA UMEAK GOGOZ ETORTZEN DIRA"

"ARKATZIK ETA PAPERIK GABE EGITEN DUTE GUZTIA; KANTUA IZATEN DA ESKOLETAKO PROTAGONISTA"

lana. Gauza soilekin ondo moldatzen dira: oinak eta bestelako elementuak emanez gero, aise osatzen dituzte bertsoak, edo erantzuten puntuak". Laguntza hori izanik, haren aburuz, motibazioan dago giltza: "Batzuetan asmakizunak eta halakoak planteatzen dizkiegu. Berezko interesari jolasaren motibazioa edo zerbait asmatu beharra gehituz gero, ia ohartu gabe hasten dira bertsotan".

Oso beharrezkoa ez bada, klaseetan euskarri materialik ez dutela erabiltzen esan du Gurrutxagak. "Arkatzik, bolalumarik eta paperik gabe egiten dute guztia"; kantua izaten da eskoletako protagonista. Horrez gain, bertsolaritza komunikazio tresna baliotsua dela ere transmititzen diete ikasleei. Gurrutxaga berak azpimarratu du "edozein egoera komunikatibotan bertsoaren elementuak adierazpide bezala erabiltzeko aukera" dela jarduera erakargarri egiten duen puntuetako bat. Hortaz, bertso eskola ez da ikasgelara mugatutako zerbait.

Zentzu horretan, bertsolaritzak bete ditzakeen esparru guztiei garrantzi bera ematen diete irakasleek. Euren xedea ez baita txapelketetan lehiatuko duten bertsolariak prestatzea bakarrik. Hori arte honen ikuspuntu hertsiegia litzateke. Honela dio Iruretagoienak: "Gure umeetako batzuk iritsiko dira plazetan abestera, eta izugarrizko ilusioa egingo liguke horrek. Baina behar dira bestelako profilak ere: kuadrillan abestuko dutenak, gai jartzaileak eta, noski, bertsoetan heziketa jakin bat duten entzuleak, entzule kualifikatuak". Hitz gutxitan dio irakasleak: "Gure helburua da, bakoitzak bere mailan, norbere burua kokatzea bertsolaritzaren munduan".

Parekotasun horretatik abiatuta, nabarmendu dute bertsolaritzaren esentzia ludikoa dela, jolasaren modukoa. Dinamikak taldean osatzen dituzte eta, hala, galdera-erantzunaren bitartez, teknika errazago barneratzen dute ikasleek. Partaideen hartu-eman hori dute, gainera, bertsolaritzaren esentziatzat. Gurrutxagak honako adibidea jarri du: Maialen Lujanbioren eta Amets Arzallusen mailako bertsolariak lehiaketan bete-betean ari direnean, badago une bat, txapelketaren tentsioa eta guzti, elkarren baitan biltzen direna. Hori da arteak berezkoa duena. "Gure helburuetako bat da umeek eskolan bertso bat abesten duten bakoitzean bertsolari profesionalek sentitzen dutena bizitzea". Iruretagoienak bat egin du: "Izan agertokian edo eskolan, berdin asebetetzen da bertso eder bat ontzen duen pertsona".

Prozesua helburu

Baina bertsolaritza ez da errima eta erritmoa soilik. Hitzak jostea bada pentsamendua garatzeko bide bat ere. Bertsolaritza "barneko gauzak adierazteko bide bat da" Iruretagoienaren ustez. "Bertsolari onek etengabe mezuak bidaltzen dizkigute, eta edonork erabil dezake lanabes hori". Gurrutxagaren iritziz, jarduera honek "mundu ikuskerak garatzen laguntzen du". Horregatik diote umeek erakusten duten "espiritu kritikoa" ez da kasualitate hutsa.

Bertsolaritzak umeei ekar diezazkiekeen onurez mintzatu dira irakasleak; sormenaren atseginaz eta kritikotasunaz gain, haien garapen kognitiboari egiten dien mesedeaz, memoria, irudimena, ahoskera, hiztegia eta beste hainbat gaitasun lantzeko balio duelako. Eta beste bat ere aipatu du Iruretagoienak: aurrez aurre hitz egiteko gaitasuna. "Oro har, jendearen aurrean hitz egitea oso zaila zaigu. Hauek, berriz, txikitatik daude ohituta ez agerian hitz egitera bakarrik, baizik eta, aldi

berean, errimatzera, ez desafinatzera eta zerbait esanguratsua esatera". Zentzu horretan, oholtza edota txapelketak baino, lanketa bera dute helburu.

Baina badago gehiago ere. Gurrutxagaren aburuz, bertso eskola sortzaileentzako gunea baita: "Hizkuntzaren gozamena ere transmititzen diegu. Bestela, non landu? Hemendik pasa izan dira artista eta sortzaile franko, ez bereziki bertsolaritza gustuko dutenak, baina euren sormena garatzeko beste lekurik aurkitu ez dutenak". Horrez gain, ohartarazi dute hezkuntza arautuan "gabezia ugari" dagoela ahozkotasunari dagokionez, "mundu akademikoan gutxietsitako arloa" dela: "Ikasketa prozesuak oso definituta daude idazketan eta irakurmenean". Horregatik, gure ahozko jardunak oinarria (telebistako esatariena, kasu) idatzizko testuetan duela diote, eta gutxi direla ahozko espresioa bere horretan lantzen duten guneak.

Iñaki Gurrutxaga, bertsolari gaztetxoekin.

Gazteen ahotsa

KARKARAk bertso eskolako ikasle talde bat ere izan du solaskide. Aho batez diote zaletasuna etxetik dakartela; hortik aurrera, bakoitzak bere modura sentitzen du bertsolaritza. Batzuek diote "gustura entzun eta sortzen" dituztela bertsoak; besteek, entzutea ez zaiela batere gustatzen, baina abestea bai. Bada uste duenik arretaz entzutea modu ona dela doinu eta teknika berriak barneratzeko; edo "kopla dibertigarri eta onak" entretenimendu ederra direla.

Bertso eskolan ikasitakoari bestelako etekinik ere ateratzen diote gaztetxoek. "Euskal kultura hobeto ezagutzeko balio du bertsolaritzak", dio batek; eta honakoa nabarmendu du beste batek: "Hitz berriak ezagutzen ditugu, haiek nola erabili, eta eskolako idazlanetan-eta baliagarri izaten dira". Euskararen kaleko erabilerarekin ere lotu dute eskolaren garrantzia: "Euskaraz hobeto hitz egiten ikasten duzu, eta jendearen aurrean ere lasaiago aritzen zara, ez zara hainbeste trabatzen".

Helburuak ere argi dituzte ikasleek, eta ez dira hutsalak. Haietako bati bertsogintza baliagarria zaio urtebetetzeetan gurasoei eta familiakoei abesteko. Txapelketak ere aipatu dituzte: "Inoiz aukeraren bat izanez gero, ondo, baina, oraingoz, ikastearekin konformatzen naiz". Eta etxean bertsolariak dituenik ere bada; ikasle horri, familia giroan bertsotan aritzeko aukera oparia iruditzen zaio.

Amaitzeko, ikastolako bertso saioak kenduta, euren lana erakusteko aukera gutxi izaten dutela aipatu dute. Hain zuzen ere, martxoaren 26rako antolatu duten ekitaldiak gazte eta helduen arteko harremana bistaratzea du helburu. Eskola egonkortzen ari den honetan, katea martxan jartzea dute xede Errikotxia bertso eskolako eragile guztiek, eta ikasleek ere gogoz heldu diote egitekoari.

"HITZ BERRIAK IKASTEN DITUGU, HAIEK NOLA ERABILI, ETA IDAZLANETAN-ETA BALIAGARRI DIRA"

Orioko Herri Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

BODEGON
Sarasua
info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | **Erreserbak**: 943-83 00 05

Jarri zure iragarkia
KARKARAn
943-83 15 27

SUKIA
TABERNA · JATETXEA
Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)
Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16
943-89 92 43
012137aa@hezkuntza.net

Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza
Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com ·

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirugia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekuperazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.

Sekretu bakarra, inurri lana

Eusko Gudarien kaleko Andu altzari dendak ia lau hamarkada daramatza zabalik. Ez da herriko negoziorik zaharrena, baina oriotar askok hor ezagutu dute beti. Herrian emakume enpresaburu oso gutxi zeuden garaian, Juanita Lertxundi izan zen denda martxan jarri zuena. Haren semeak azaldu ditu nondik norakoak.

Testua: **Aitziber Arzallus.**
Argazkiak: **Iñigo Gaiton.**

Herrian badira pertsiana behin betiko jaitsi berri duten negozioak, badira negozio berriak irekitzeko prestatzen ari diren lokalak, eta badira negozio mitikoak, 20-30 urteen bueltan dabiltzanentzat herriko paisaiaren parte direnak, beti hor ikusi izan dituztelako. Eusko Gudarien kaleko Andu altzari denda da horietako bat. Ez da herriko negoziorik zaharrena, baina badaramatza hamarkada batzuk martxan, eta herrian gertatu diren aldaketen lekuko izateaz gain, kontatzeko moduko historia du.

Egun Joxe Mari Genovak (Orio, 1966) du barne diseinu eta dekorazio lanetarako estudioaren ardura, baina negozioa haren amak jarri zuen martxan, Juanita Lertxundik (Orio, 1942-2006), 80ko hamarkadaren erdialdera. Genovak azaldu ditu nondik norakoak: "Orain The Pass dagoen tokian altzari tailer bat geneukan; garai hartan, Muebles Lertxundi. Familiako lantegia zen, aitonak eta zenbait bazkidek irekia, neurrira egindako altzariak fabrikatzeko. Altzari klasikoak egiten zituzten, egur ona erabilita, eta ama ere han ibiltzen zen, batez ere bulegoko lanetan, baina baita bestelako lanetan ere".

Altzariak egin eta saldu, dena tailerrean bertan egiten zuten, eta gero, bazituzten jakineko bezero batzuk. "Gasteizen, Gernikan, Errioxan eta beste leku batzuetan bezeroak genituen, bezero oso onak, eta haiekin lan asko egiten genuen", jarraitu du Genovak. Juanitak, ordea, gehiago saltzeko modua ikusi zuen. "Altzariak herritarren bistan jarri behar zirela esaten zuen, erakutsi egin behar

Joxe Mari Genova, Eusko Gudarien kalean daukan dendan.

zirela, denen eskura jarri. Garai hartan biltegia geneukan hemen, eta denda jartzea erabaki zuen".

Lantegian egindako altzariez gain, kanpokoak ere saltzen zituen dendan. "Herrialde Katalanetatik ekartzen zuen asko: Bartzelonatik, Tarragonatik, Valentziatik… Baina beti saiatzen zen hemen ingurukoei ere lekua egiten". Altzari klasikoekin hasi zen arren, laster ireki zizkien ateak beste estilo batzuei, modernoagoei, eta aurki hasi zen gaztetxoen gelak saltzen ere.

Altzarigintzarako tradizioa

Itsasoari eta arrantzari lotutako herria izanagatik, Orion beste lanbide batzuetarako joera ere egon dela esan du Genovak; besteren artean, arotz asko eta onak atera direla, eta altzarigintzarako tradizioa egon dela. "Pentsatzen dut erriberako arotzak izango zirela aurrena, eta pixkanaka, lehorreratzen joango zirela". Gogoan du, umea zela, herrian altzari fabrika ugari zeudela: "Lertxundiz gain, hor zeuden Arin y Embil, Leunda, Esnal, Aramendi…". Altzari dendak zabaltzen, berriz, geroxeago hasi zirela esan du. "Aurretik bazegoen bakarren bat, eta gure amak denda zabaldu garaian, besteren batzuk ere ausartu ziren". Dena dela, 80ko hamarkadaren erdialdera, artean emakume enpresaburu oso gutxi zeuden herrian. "Gure amak txantxetan esan ohi zuen bera bi aldiz engainatu zutela, etxean eta kanpoan, bietan lan egitea tokatzen zitzaiolako".

Amaz galdetuta, mirespenez hitz egiten du Genovak. "Gorputzez ez zen emakume handia; bai, ordea, izaera eta nortasun handikoa. Gizonezkoen artean mugitzen zen erabat, mundu oso maskulinoan; jasan beharko zituen bereak, baina errespetatuarazi egiten zen. Tailerrean erraz moldatzen zen, jende oso jatorra baitzegoen; obretan, zapaldua izan ez zedin, bazekien bere tokian egoten; eta gremioen artean maitatua zen, izaera tinkoa izan arren, oso langilea baitzen. Lider sena zuen, baina inurri bat zen, beti lanean. Denda jarri zuenean, berriz, askatu egin zen".

Denda jarri eta gero, ikasteari ekin zion Lertxundik. "Tailerrean jardutetik gauza asko zekizkien, baina ez da gauza bera altzari bat

diseinatzea eta etxebizitza baterako proiektu bat egitea. Horretaz jabetuta, gu nerabeak ginela, ikasten hasi zen ama. Egun guztia dendan pasatzen zuen, 19:00etatik 22:00etara Donostiara ikastera joaten zen, eta handik bueltan, etxekoak egin behar izaten zituen".

Aldaketa handiko garaiak

Ikasketa haiek beste ate batzuk ireki zizkioten Lertxundiri, jendea hasi baitzitzaion etxebizitza goitik behera eraberritzeko eskatzen. "Artean eskuko telefonorik ez zegoen, eta pentsa zer izaten zen hura: gure etxean ohikoa zen 21:30ean eta 22:00etan ama telefonoz eskaiolistarekin edo igeltseroarekin telefonoz hizketan entzutea. Baina lanak egin egiten ziren".

Kanpora ere sarri joan behar izaten zuen, azoketara gehienbat. Hasieran, ahizpa batekin joaten zen, baina laster hasi zitzaion semea amari laguntzen. "Konturatu nintzen, dendan lan egin nahi banuen, prestatu beharra neukala, eta soldadutzatik bueltan, dekorazio ikasketak egiten hasi nintzen". 21 urterako amarekin ari zen eskuz esku, eta azoketara ere elkarrekin joaten ziren. "Emakume nekaezina zen, etorriko zenari tankera hartzeko gaitasun handia zeukan, eta gainera, ausarta zen. Zerbait deigarria ikusten bazuen, erosi egiten zuen, eta gehienetan, asmatu". Horretarako, begiak irekita eduki behar direla dio Genovak, "egiten duzuna gustatu egin behar zaizu, gustua eduki behar duzu, eta asko irakurri, denbora librean ere ordu asko eskaini".

2006an hil zen Juanita Lertxundi, gazte, 63 urterekin, eta orduz geroztik, Genovak eusten dio negozioari. Eta amarenak aldaketa urteak izan baziren, semearenak ez dira izan gutxiagorako. Ikea eta antzerako denda handien etorrera, Internetarena, 2008ko krisialdia eta etxegintza sektorearen gainbehera, pandemia... Horiei guztiei aurre egin eta hor jarraitzen du oraindik, Eusko Gudarien kaleko bere txokoan. "Azken hamabost urteotan krisialdi etengabe batean bizi garen sentipenarekin, beti zerbaiti ihesi eta beti zerbaitek ihes egiten digulakoan, baina hemen jarraitzen dugu, eta jarraituko dugu, inurri lanean".

"AROTZ ASKO ETA ONAK ATERA DIRA HERRIAN, ETA ALTZARIGINTZARAKO TRADIZIOA EGON DA"

"EMAKUME NEKAEZINA ZEN AMA ETA ETORRIKO ZENARI TANKERA HARTZEKO GAITASUN HANDIA ZEUKAN"

Zintzilik

ELI HUEGUN

Lan erreformari buruz idaztera nentorren. Zer daukan txarra eta zer ona, zenbat gauza falta dituen, zergatik ez dituen 2010-2012ko erreformak gainditzen, zergatik ez dugun babestu eta zergatik den erabat zentralista. Baina gero bestela pentsatzen jartzen naiz eta nire buruari esaten diot: "Ze pesada, Eli". Eta sartzen naiz halako bakarrizketa batean, non konturatzen naizenerako ordu laurden daramadan bazterrera begira ezer egin gabe, pentsamenduetan murgilduta.

Klin! Mezu bat posta elektronikoan. Ireki beharko. Jesus, tonu oso zatarra erabili du idatzi duenak. Astean bi edo hirutan mezu xelebre samarrak iristen zaizkit ezezagunengandik, lanarekin zerikusirik ez dutenak. Gizon honek galdetu dit ea zer egin behar duen ekintzaile izateko eta finantzaketa lortzeko. Eta zertarako idazten dit ba niri? Helbidea nondik atera duen ere ez dakit. Foro egokiago batera bidali nuen eta, antza, ez zaio gustatu erantzuna. Bejondeikela.

Bat-batean, oroitzapena desblokeatuta: liburu bat etorri zait burura: *Jende toxikoa*. Saltoki handi bateko apalean deskubritu nuen, hantxe, zintzilik. Agian komeni zait liburu hori irakurtzea, azken boladan sentsazioa baitaukat inguruan toxizitate handiegia daukadala. Beno, agian ez, gutxi batzuk baino ez dira, baina inguruko guztia zikintzeko gaitasun galanta dute, gauza onak estaliz. Ziur edizio mordoxka dituela.

Beste liburu bat? Liburuak erosteko daukadan ohitura sostengaitza da, ez baititut erosi ahala irakurtzen. Eskerrak bigarren eskuko dendetara ez naizen hain sarritan joaten. A ze leku galera, bestela. Gainera, azken boladan hasi ditudanek ez naute engantxatu. Lagun batek artikulu bat pasa zidan, eta esaten zuen pandemiak askori ondorio modura irakurtzeko ezintasuna utzi diola, liburuekiko banantze moduko bat, eman beharko lizukeen sosegu falta hori. Hori gertatzen zait? Jo, ba baliteke, ezin ezetz esan.

Eta hara, halako batean konturatu naiz berriz ere bertan geratu naizela, bazterrera begira, ideia batetik bestera saltoka zenbat denbora daramadan ez dakidala, zintzilik, apaleko liburua bezala. Bai, erosi egingo dut. ▬

GUTXI BATZUK BAINO EZ DIRA, BAINA INGURUKO GUZTIA ZIKINTZEKO GAITASUN GALANTA DUTE

Salto bat aurrera

TESTUA: JABIER ZABALETA

Salto bat egiteko garaia da euskara arloan. Datozen hamar urteak klabeak izango dira euskararen norabidea zehazteko, bai Euskal Herrian eta bai Orion, eta oraingo euskaltzaleoi dagokigu inertziak astintzea eta bide berriak urratzea, Txepetxek esaten zuen bezala, "gure iraganak etorkizuna izan dezan".

Azken urteotan aldaketa garrantzizkoak gertatu dira euskararen munduan: administrazioaren eta euskalgintzaren arteko adostasun berriak, Euskaraldia, hizkuntza-teknologietan egindako aurrerapenak, EAEko Udal Legearen eta hori garatzen duen dekretuaren onarpena, udalerri euskaldunen garrantziaren aitorpena, ikus-entzunezkoen arloan izandako aldaketak, euskararen kaleko erabilerak hartu duen beheranzko joera, bizimodua aldrebestu digun pandemia… Euskarari dagokionez, fase-aldaketa batean gaudela uste dute euskalgintzako eragileek: aurreko fasea agortuta dago, eta une egokia da gogoeta egin, indarrak bildu eta aurrerapauso sendoak emateko. Jon Sarasuak esana da, orain dela gutxi: "Asko egin dugu, eta osatu dugun bidea eredu da hemendik kanpo; baina, orain arte egin duguna eginez, ez dugu aurreratuko".

Orion ere irakurketa bera egin daiteke: asko aurreratu dugu arlo batzuetan, baina bidean erronka berriak ere agertu zaizkigu: aldaketa demografikoen eraginari buelta ematea, garapen urbanistikoak euskararen osasunean sortutako ajeak, oriotar berrien hizkuntza-integrazioa, hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa, ikastetxeen zailtasunak ikasle batzuk euskaldun aktibo bihurtzeko, erabilerari eusteko zailtasunak bereziki eremu informaletan, herritarren kontzientziazioan etengabe eragin beharra…

Erronka berriei aurre egiteko, geldialdi bat egin eta aurrerantzean zein bide hartu hausnartu dugu Orion, gogoeta kolektibo baten bidez. Gogoeta kolektibo hori 2021eko udazken-neguan egin dugu, herriko talde eta norbanako ugarirekin batera. Lau lantalde osatu ditugu, estrategikoak iruditzen zaizkigun arlo hauetan: kirola, hezkuntza, merkataritza eta sentsibilizazioa. Arlo bakoitzeko herriko eragileek hartu dute parte lantaldeetan, eta lantalde bakoitzak hiru bilera egin ditu, 2021eko urritik 2022ko otsailera. Bejondeizuela eta mila esker prozesuan parte hartu duzuen guztioi!

BILERETAN IKUSI DUGU BADAGOELA GOGOA ETA BULTZADA EKIMEN BERRI INDARTSUAK ABIATZEKO

Bileretan xehe-xehe eta arloz arlo aztertu dugu euskararen gaur egungo egoera Orion, eta egoera hori hobetzeko proposamenak landu ditugu. Arlo guztietan dago zer hobetu eta proposamen berri ugari bildu ditugu lantaldeen bileretan eta prestatutako galdetegien bidez. Proposamen horiekin elikatu dugu *Orioko Euskara Plana 2022-2032* dokumentuaren zirriborroa, orain udalak aztertu, osatu eta bere egingo duena.

Zailtasunak zailtasun, Orion abiapuntu ezin hobea dugu euskara sustatzeko politika ausartak egiteko eta horri ekin behar diogu modu kolektiboan datozen urteotan. Lan-bileretan ikusi dugu badagoela gogoa eta bultzada, orain arte egin izan dugunaz gain, ekimen berri indartsuak abiatzeko eta salto bat aurrera egiteko.

Elkar hartuta egingo dugu salto hori.



Eguraldi iragarpena

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Bederatzi dira.



Itzala

Zein da Maripurtzilen itzal zuzena?

Mezu gordea

Esaera zahar asko eguraldia iragartzeko trukuak direla ematen du. Jarri iruditxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia eta asmatuko duzu zer dioen honoko honek:







Irudi engainariak

Puskatxo hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, ez datoz irudiarekin bat, osoantzekoak izan arren. Bereiz itzazu.

Bide batez, marraztu iezaiozu zakur iletsu bat alboan eta margotu.

HOZKIRRIA

LANGARRA

ERREKA-LAINO

ENBATA

ZIRIMOLA

Zer?!

Ba al dakizu nola esaten zaion tramankulu honi? Haizearen abiadura eta norabidea neurtzeko balio du eta ez da A letraz amaitzen.

ISOBARA

ARRANPALO

BELOZIPEDO

ARRANGURA

HAIZAGAILU

ANEMOMETRO

UFADA-PALA

Bakoitzari berea

Lotu hitz bakoitzari dagokion irudia. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabanentzat eta karabanentzat plazak alokagai. Garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Telefonoa: 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje baten bila Goiko kalen. Telefonoa: 690 27 28 42.

LAN BILA

Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. Neska arduratsua eta berehala lanean hasteko prest. Telefonoa: 627 61 37 83.

Emakume gaztea lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Telefonoa: 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketak egiteko prest. Telefonoa: 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Telefonoa: 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Telefonoa: 602 08 98 86.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Telefonoa: 643 85 78 54 Samanda.

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest. Fardelak aldatzen eta dutxatzen laguntzen espezializatua. Orduka lan egiteko prest. Telefonoa: 697 65 05 19.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketak edo tabernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Telefonoa: 627 09 07 06.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. Esperientzia dut zeregin horietan eta baita prestutasun osoa ere. Telefonoa: 695 37 82 60 Estrella Reyes.

Adinekoen zaintza lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Aurretik egindako lanen erreferentzia onak ditut, eta edadekoen zaintza lanetarako behar den titulua ere bai. Telefonoa: 612570345.

Adineko pertsonak zaintzeko prest dagoen emakume bat naiz. Titulu soziosanitarioa dut, eta sei urteko esperientzia zaintza lanetan: jaten ematen, medikazioak, higienea, postura eta fardel aldaketak... Orion bizi naiz, eta paper guztiak legeztatuta dauzkat. Telefonoa: 643086474. Neriz.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte asegurua ordaindua du. 3.500 euro. Telefonoa: 657 77 45 11.

Zerrama, apotea eta txerrikumeak salgai Usurbilgo baserri batean. Telefonoa: 607 66 86 03 Joxe Krux.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Telefonoa: 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan hartzeko, Orion edo inguruan. Telefonoa: 657 71 96 14.

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: **karkara@karkara.com.**
Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

FARMAZIAK-MARTXOA

ZARAUTZ

7.
ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98

12,13 eta 30.
ESPARZA: Santuiturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83

2, 8, 11, 14 eta 24.
GALLO: Zigordia kalea, 17 / 943-13 40 19

19, 20, 25 eta 31.
GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19

5, 6, 17 eta 29.
IRIARTE: Zinkunegi, Pilartxo Enea / 943-13 29 70

4, 9, 16 eta 23.
ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70

1, 3, 10, 18, 22, 26 eta 27.
LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14

15, 21 eta 28.
REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83

ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera
1	03:27 eta 15:59	09:37 eta 21:53
2	04:12 eta 16.40	10:21 eta 22:34
3	04:53 eta 17:17	11:00 eta 23:13
4	11:05 eta 23:48	04:43 eta 17:23
5	12:13	06:07 eta 18:24
6	00:27 eta 12:47	06:42 eta 18:56
7	01:04 eta 13:22	07:16 eta 19:28
8	01:41 eta 13:58	07:52 eta 20:04
9	02:22 eta 14:38	09:17 eta 21:34
10	03:52 eta 16:15	08:31 eta 20:48
11	03:12 eta 15:31	09:23 eta 21:52
12	06:05 eta 18:34	11:27 eta 23:41
13	05:59 eta 18:23	12:30
14	06:44 eta 19:13	00:26 eta 12:59
15	07:33 eta 20:05	01:14 eta 13:49
16	09:37 eta 21:09	03:23 eta 15:45
17	10:09 eta 22:16	03:57 eta 16:18
18	10:40 eta 22:49	04:30 eta 16:50
19	11:13 eta 23:23	5:04 eta 17:23
20	11:47	05:39 eta 17:58
21	0:00 eta 12:23	06:15 eta 18:34
22	00:39 eta 13:02	06:54 eta 19:14
23	06:54 eta 19:14	07:38 eta 20:01
24	02:12 eta 14:39	08:30 eta 21:00
25	03:15 eta 15:50	09:42 eta 22:24
26	04:41 eta 17:27	11:26
27	7:20 eta 19:59	01:03 eta 14:05
28	08:39 eta 21:04	02:24 eta 15:12
29	09:36 eta 21:53	03:24 eta 16:01
30	10:20 eta 22:35	04:12 eta 16:41
31	10:59 eta 23:13	04:53 eta17:17

AGENDA

ORIO

MARTXOAK 11, OSTIRALA

Kontzertuak: Keia eta Shibuya. Etxeluze gaztetxean, 21:00etan.

MARTXOAK 13, IGANDEA

Dantza: Gipuzkoa Dance Constest txapelketa. Kiroldegian, egun guztian.

MARTXOAK 15, ASTEARTEA

Zine foruma: *Despedidas* filma eta solasaldia. Salatxon, 18:00etan.

MARTXOAK 19, LARUNBATA

Dantza: Danbolin musika eskolako ikasleen emanaldia. Kiroldegian.
Kontzertuak: Liher eta Ginger. Etxeluze gaztetxean, 22:00etan.

MARTXOAK 21, ASTELEHENA

Ipuin kontaketa: Miriam Mendozaren eskutik. Kultur etxean, 17:30ean.

MARTXOAK 27, IGANDEA

Bertso saioa. Kiroldegian, 18:00etan.

MARTXOAK 28, ASTELEHENA

Hitzaldia: *Heriotza duina.* Arraunetxen, 19:00etan.

MARTXOAK 30, ASTEAZKENA

Ipuin kontaketa: Pello Añorgaren eskutik. Kultur etxean, 17:30ean.
Hitzaldia: *Oriotarrak pizkunde garaian: XVI. mendeko euskal kostaldeko gizartearen ikuspegi bat.* Arraunetxen, 19:00etan.

AIA

MARTXOAK 5 ETA 7

Idi probak: Kintopekoen XXIV. edizioa, Udaberri Saria. Probalekuan, 22:30ean.

MARTXOAK 6, IGANDEA

Kirola: Aiako XI. Mendi Lasterketa. Herriko plazan, 10:30ean.

MARTXOAK 12, LARUNBATA

Antzerkia: *Losers.* Probalekuan, 22:30ean.

MARTXOAK 19, LARUNBATA

Automobilismoa: XV. Andatzatik Aiara Igoera. Herriko plazan, 09:00etan.
Kontzertua: Bulego. Probalekuan, 22:30ean.

Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna *karkara@karakara.eus* e-posta helbidera bidali martxoaren 18a baino lehen. **Saria:** onddo lote bat, Arrospide Banaketaken eskutik. Karkara komunikazio taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Otsaileko Karkara aldizkaria Karkara pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen. 29. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Kontxi Eizagirre Peña** bazkidea izan da irabazlea.

Puntua jarrita

Bertsoak: Iker Gurrutxaga
Zubimendi
Doinua: Iparragirre abila dela

1

KARKARAn eman lehen pausoak

ta orain Musikharia,

gertatutako berritasunez

informatzeko herria.

Uneoro kazetari,

egon behar da adi,

baina hartuaz neurria.

Gogoan izan pertsona ere

badela kazetaria.

2

Nahiz eta hemendik joango nintzenik

ez nuen inoiz usteko,

balio izan dit nazio mailan

ogibidea lantzeko.

Musika ardatz hartuta,

irratia piztuta

batera disfrutatzeko,

Naiz Irratian hor naukazue

belarriak goxatzeko.

3

Inurri lana egin behar da

musikarien artean,

asko dakite gauza hauei buruz

Etxeluze gaztetxean.

Defendatu eszena,

gero ez hartu pena,

gainera Orio partean

bost disko eder atera dira

pandemiako urtean.

Hurrengo bertsolaria:
Malen Gurrutxaga Lete.
Puntua:
Geldirik egiteko
zu ez zinen jaio.

HASI BERTSOTAN ATALEAN PUNTUKA ARIKO DIRA BERTSOLARIAK. ORAINGOAN IKER GURRUTXAGARI JARRI DIO PUNTUA LANDER SARASOLAK.

DISEINU LANAK

- PAPEREKO APLIKAZIOAK: FLYERRAK, DIPTIKOAK, KARTELAK, ETAB.
- KATALOGO PROFESIONALAK/ KORPORATIBOAK.
- AURKEZPEN KORPORATIBOAK.
- ESPAZIOEN SEINALITIKA.
- MERCHANDISING-A ETA PACKAGING-A.
- INFOGRAFIAK.

GUKA ZERBITZUAK

Soreasu 1, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa) 943-81 38 41 • gukazerbitzuak@ukt.eus